

AIA
RAL
DEA
-
FAK
TO-
RIA

www.aiaraldea.eus

# Aiaraldea jaietan

2023ko udako jaiak


SORMEN BEKAK I SORMEN EGONALDIAK
Murgildu
SORMENEAN
Aterpea eta azpiegiturak: Faktoria oso bat, prozesu-kreatiboak garatzeko. Harreman biziez inguratuta, emaitzaren kezkarik gabe.
Proiektuak aurkezteko eta zalantzak argitzeko:
kultura@aiaraldea.eus
Epea
abuztuak 30
Oinarriak eta info+
kulturfaktoria.eus/egonaldiak
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KUL TU R -
FAK TO- RIA


BEHERA PENAK
KOT.eus
@kotnatura
KOT
KANTAURI
KOT
WEB OSOA %20ko DESKONTUAREKIN

# Egutegia

## ABUZTUAK


**04-05** Kexaako jaiak
*10. orrialdea*

**05-09** Okondoko San Roman jaiak
*19. orrialdea*

**06** Llantenoko Andra Mari Zuriaren jaia
*10. orrialdea*

**08-09** Luiaondoko Santo Domingo jaiak
*9. orrialdea*

**09** Urduñako Orruñoko jaiak
*24. orrialdea*

**10** Luiaondoko San Lorenzo jaiak
*9. orrialdea*

**11-17** Amurrioko jaiak
*42-56 orrialdeak*

**14-16** Urduñako Kalebarriako jaiak
*23. orrialdea*

**14-15** Arranku-diagako jaiak
*34. orrialdeak*

**15** Luxoko jaiak
*10. orrialdea*

**15-17** Laudioko jaiak
*76-78. orrialdeak*

**20-25** Okondoko San Bartolome jaiak
*20. orrialdea*

**23-27** Laudioko jaiak
*86-90. orrialdea*

**30-31** Soxoko jaiak
*10. orrialdea*

**31** Orozkoko jaiak
*100. orrialdea*

**11-17** Amurrioko jaiak
*42-47. orrialdeak*

**14-16** Urduñako Kalebarriako jaiak
*25. orrialdea*

**18-21** Arranku-diagako jaiak
*34. orrialdeak*


## IRAILAK


**01-04** Orozkoko jaiak
*100-102. orrialdeak*

**01-03** UrduFolk jaialdia
*29. orrialdea*

**01-10** Artziniegako jaiak
*108-112. orrialdeak*

**04** Kobatako San Bitores jaia
*11. orrialdea*

**07-10** Baranbioko jaiak
*60. orrialdea*

**08-09** Etxaurrengo Jaiak
*11. orrialdea*

**08-09** La Antiguako jaiak
*27. orrialdea*

**15-17** Latiorroko jaiak
*92. orrialdea*

**16** Artziniegako Antzinako Azoka
*114. orrialdea*

**16-17** Atxetako jaiak
*35. orrialdeak*

# Badugu zer ospatu

Esku artean duzun hau Aiaraldeko udako jaien egitarauaren nondik norakoak eta sekretuak argitzen dituen argitalpean da. Herriz herri eta auzoz auzo bildu ditugu abuztuko eta iraileko jai egitarau guztiak. Hartu, arakatu eta batez ere gozatu gure eskualdeko festetaz!

Eskualde oso batek auzolanean eginiko ahaleginaren emaitza dira udako jaiak; jai batzordeek, udalek, administrazio batzarrek, elkarteek, eragileek eta norbanakoek eginiko ahaleginaren fruitua. Aiaraldea Komunikabide Faktoriak ere bere alea jarriko du, ekintzen jarraipen berezia eginez. Jarraipen horren mugarrietako bat da esku artean duzun aldizkaria, baina ez bakarra. Datozen asteetan Aiaraldea.eus atarian emango dugu herri eta auzoetan egingo diren ekintza maratoien berri, artikulu, elkarrizketa, argazki, bideo zein zuzeneko emisio berezien bidez. Kalejira, herri bazkari edota kontzertuetan ikusiko dugu elkar! Aiaraldea Ekintzen Faktoriak, aldiz, ateak itxiko ditu abuztuan, irailean indarberrituta itzultzeko, eskualdearen eraldaketa euskaratik eta euskaraz hauspotzen jarraitzeko prest. Baliatu ditzagun jaiak horretarako ere: euskaraz harremantzeko, tokiko ekoizleen produktuak kontsumitzeko, euskarazko kultur sortzaileen lana babesteko edota eraso sexisten aurkako aldarri ozena plazaratzeko. Goazen bizitzeko ekintzen faktoriak txoko guztietan errotzera!

**Argitaratzailea:** Aiaraldea Koop. Elkartea **Tirada:** 6.000 ale **Lege gordailua:** BI-1230-2013 **Erredakzioa:** Aiaraldea Komunikabideko erredakzioa **Prezioa:** Doan **Posta elektronikoa:** erredakzioa@aiaraldea.eus **Publizitatea:** publizitatea@aiaraldea.eus **Tlfnoa:** 946568554 **Webgunea:** www.aiaraldea.eus **Helbidea:** Errotari kalea, 4-8 pabilioia, Laudio 01400 **Oharra:** Aiaraldea Komunikabideak ez du bere gain hartzen elkarrizketetan adierazitakoaren gaineko erantzukizuna.

araba álava
foru aldundia diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

# Aurkibidea

**40-42. ORRIALDEAK**
AMURRIOKO JAI ORDEZKARIAK,
Elkarrizketa laburrak

**52-53. ORRIALDEAK**
'LA RUTA INTEGRAL',
Amurrioko taberna guztiak egun bakarrean bisitatzeko erronka

**74-75. ORRIALDEAK**
AITOR LAZKANO
Laudioko jai-kartelaren egilea

**80-82. ORRIALDEAK**
LAUDIOKO KUADRILLAK
Elkarrizketa laburrak

**96-99. ORRIALDEAK**
OROZKOKO GARRAFA ELKARTEA,
Jaietako pregoilariak

**110-111. ORRIALDEAK**
ARTZINIEGAKO PLAYBACK LEHIAKETA,
Herri oso bat kantuan



**08. ORRIALDEA**
Janire Gardeazabal Martinez



**16. ORRIALDEA**
Xabier Ugalde Gulias



**26. ORRIALDEA**
Irati Garcia eta Egoitz Larrieta



**28. ORRIALDEA**
Axier Lopez



**38. ORRIALDEA**
Iñaki Bea



**48. ORRIALDEA**
Kai Nakai



**66. ORRIALDEA**
Laudioko Eskualde Etxeak



**72. ORRIALDEA**
Oscar Gomez eta Agustin Diaz





Babestutako edukia

# Aiarako herrietako jaiak



## Pruden Otegi Etxebarria

AIARAKO ALKATEA

Duela hilabete batzuetatik hona jaiak herririk herri hedatzen joan dira Aiaran, hamaika proposamen ezberdinekin. Hurrengo asteetan jai leherketa horrek bere ohiko bidea jarraituko du, une ahaztezinak utziz.

Balia ditzagun egun horiek gure herrietan gozatzeko, Aiarako herrien arteko loturak sendotu eta areagotzeko. Udako gau eta egun hauek irribarre zabal bat marraz dezatela, eta ohi denez, errespetuan oinarriturik, aske dantzatu, maitatu eta harremenak egiteko espazioak izan daitezela.

Ekitaldi ezberdinak prestatzen zein horietan parte hartzen onena ematen dugulako, lerro hauetan gure eskertza beroena adierazi nahi dugu ekitaldi ezberdinen antolakuntzan aritzen diren herritar guztiei, haiek gabe ezinezkoak izango baitziren jai herrikoiak. Horregatik, jaien atzean dagoen lan handi horri balioa eman eta horren araberako erantzun herritarra ematera dei egin nahi dugu Udaletik.

Esan gabe doa, jaiak guztientzako jai izan behar direla. Lanak, zaintza eta bestelako ardurak partekatuz lortuko dugu irribarrea are handiago eta zabalagoa egitea, izan haur, gazte edo adineko.

**Jaiak gozatu eta parteka ditzagun!**

Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

Elkarrizketa

# “Gazteen artean ahoz aho zabaltzen da Luiaondoko jaietara bertaratzek deia”

**JANIRE GARDEAZABAL MARTINEZek** piztu du Luiaondoko jaiei hasiera emateko suziria, Dama izatea egokitu baitzaio. Festaren nondik norakoez mintzatu da Aiaraldea komunikabidearekin.



**Luiaondoko bolatokian geratu gara elkarrizketa egiteko. Zer dela hautatu duzu toki hau?**

Toki hau aukeratu dut jende askok jolasten duelako boloetan Luiaondon. Betidanik mantendu da tradizio hau eta, gainera, Euskadiko Txapelketa hemen egingo da datorren urtean. Horregatik, toki garrantzitsu bat da une honetan. Nik txikitan jokatzen nuen boloetan. Orain ez dut jokatzen, baina gustatuko litzaidake berriro jokatzea. Gogoko dut toki hau.

**Betidanik bizi izan zara Luiaondon?**

Ez. Lehen Laudion bizi nintzen, baina, zortzi urterekin etorri nintzen hona bizitzera.

**Eta ezberdintasun asko sumatzen duzu toki batetik bestera?**

Bai. Nire ustez, hobe da Luiaondon bizitzea. Lasaiagoa da, jende gutxiago dago. Kalean ez zara, adibidez, 20 kuadrillarekin topatzen. Hori ere oso ondo dago, baina nik ez dut gogoko egunero jende askorekin egotea. Nahiago dut Luiaondon egon: mundu guztia ezagutzen duzu, oso giro ona dago, oso lasaia... joan zaitezke toki batera eta bakarrik egon... oso gogoko dut.

**Dena den, jaietan herria bete egiten da, eta jende gazte asko dago.**

Bai. Gazte asko gaude Luiaondon eta jende asko dator hona bizitzera. Eta jende gehiago erakartzen dugu. Ni, adibidez, Laudiora noa, eta Santutxun (Bilbo) egiten dut lan. Bertatik aipatzen dut Luiaondon bizi naizela eta jaiak direla... eta jendea animatzen da. Jende asko etortzen da, egia esan, eta uste dut horrela izaten jarraituko duela. Ahoz aho zabaltzen dela esango nuke.

**Eskualdeko gainontzeko gazteekin ere duzue harremana, orduan.**

Bai. Lagunak ditugu baita Artziniega eta Okondon ere, eta jende asko gerturatzen da toki horietatik, autoz edo beste modu batzuetan.

**Jende gehiena ostiralean eta larunbatean bertaratzen da, ez da hala?**

Bai, ostiralean eta larunbatean, bi egun horietan daudelako erromeria eta DJa. Herrikoak, aldiz, egun guztietan gaude. Txupinazo egunean, adibidez, normalean gu baino ez gaude, gauean ez dagoelako gauza askorik. Igandean ere ez da jende asko bertaratzen. Frontenis Txapelketa dago, eta horren informazioa agian ez da herritik kanpo zabaltzen, edo ez dio arreta ematen herrikoa ez den jendeari.

**Eta zuk, zer da jaietatik gehien gogoko duzuna? Zer dute berezi Luiaondoko jaiek Amurriokoekin edo Laudiokoekin alderatuta?**

Giroa. Orain lau egun ospatuko ditugu, Madalenak; eta gero beste bi egun daude abuztuaren 8an eta 10ean, Santo Domingo eta San Lorentzo. Egun horietan ere herriko jendea dago soilik, eta ederra da giroa: jende guztia ezagutzen duzu, eta guztiekin hitz egiten duzu, berdin du 18, 24 edo 46 urte izan, denak gaude elkarrekin abesten eta dantzatzen. Nire ustez hori da bereziena; herriko giroa.

**Eta giro hori San Lorentzo eta Santo Domingoko jaietan sumatzen da gehiago, ez?**

Hori da. Egun horietan ez dago ez DJrik ez erromeriarik, eta kanpoko jendea ez da etortzen, ez dakite egun horietan festa dagoenik ere. Oso ospakizun bereziak dira. Tortilla Txapelketa egiten da, adibidez, eta herrikook soilik hartzen dugu parte. Ondo legoke beste herrietako pertsonek ere egun horiek ezagutzea eta etortzea. Leku bereziak dira. San Lorentzokoa leku oso berezia da, eta Santo Domingokoa ere bai, eta bertako festak ez ditu jende askok ezagutzen.

**Zer mezu helarazi nahiko zenuke jaietan?**

Giro ona egon dadila, hori da garrantzitsuena niretzat, jende orok parte hartzea ekintza guztietan. Luiaondoko jaiak dira, herri txiki bat da eta normalean ez da jende asko gerturatzen, baina egun hauetan bai.

> *“Jende guztia ezagutzen duzu, eta guztiekin hitz egiten duzu. Nire ustez hori da bereziena; herriko giroa”*



## Abuztuak

### 04 Ostirala

- 20:30 **Txorizo Jana**
  Oleta jatetxean
- 20:30 **KM musi.k Disko-festa**
  Oleta jatetxean

### 08 Asteartea *Santo Domingo*

- 12:00 **Meza nagusia**
- 12:30 **Haurrentzako Jolasak**
- 13:00 **Bermuta**
- 14:30 **Herri bazkaria**
  Baselizako zelaian
- 16:30 **Briska txapelketa**
- 17:00 **Haurrentzako aurpegi margotuak**
- 17:30 **Adinekoen jolasak**
- 19:30 **Elkarretaratzea**
  *“Erasorik ez erantzunik gabe”*
- 21:00 **Ganeko erromeria**
- 23:00 **Sospechoso de SPAM**
  *Diskofesta*

### 10 Asteazkena *San Lorentzo*

- 11:00 **Tortilla eta pintxo lehiaketa**
- 12:00 **Lorentzo Deunaren ohorezko meza**
- 14:30 **Herri bazkaria**
  Baselizako zelaian
- 16:30 **Tute Txapelketa**
- 17:00 **Haurrentzako ur-txirrista**
  Baselizako zelaian
- 18:00 **Landa jokoak**
- 19:30 **Bingoa**
- 20:00 **Etxebarria aita-semeak**
- 21:30 **Txintxorta-jana**
- 22:00 **Ganeko erromeria**

# Kexaa
## Abuztuak

### 04 Ostirala
18:00 **Bola jokoa**
Bolatokia
20:00 **Meza**

### 05 Ostirala
09:00 **Suziriak**
12:00 **Meza nagusia**
13:00 **Zozketa herrikoia**
*Pintxopotea goizean zehar*
17:00 **Bolo txapelketa**
Bolatokia
18:30 **Igel-toka txapelketa**
19:30 **Goyo Magoa**
20:30 **Txokolate-Jana**
*Jaien amaiera*

# Soxo
## Abuztuak

### 30 Ostirala
09:00 **Kanpai iraulketa**
09:30 **Mendi Martxa**
12:00 **Meza nagusia**
13:00 **Txapel jaurtiketa lehiaketa**
18:30 **Apar-festa**
19:30 **Mus Txapelketa**
22:30 **Joselu Anaiak**
02:30 **DJ Sospechosos de Spam**

### 31 Larunbata
13:30 **Meza**
13:30 **Igel-toka txapelketa eta talo dastaketa**
18:00 **Haurrentzako jolasak**
19:00 **Tute txapelketa**
21:00 **Parrillada**
22:30 **Otegi erromeria**
22:30 **Mozorro lehiaketa eta**
00:00 **Bingoa**
01:00 **Erromeria**



# Lanteno Andra Mari Zuria
## Abuztuak

### 06 Igandea
12:00 **Meza nagusia**
12:30 **Herri jolasak**
14:30 **Bazkaria**
18:00 **Txapela jaurtiketa eta zaku lasterketa**
19:30 **Erratz dantza**
20:30 **Txokolate-jana**
21:30 **DJ Mikel Presta**

# Luxo
## Abuztuak

### 15 Asteartea
13:00 **Meza nagusia**
*Ostean, luntxa*



# Etxaurren
## Irailak

### 09 Larunbata
18:30 **Bederatziurrena**
19:30 **Parrillada**
*Izalde erromeriarekin*

### 10 Igandea
11:00 **Trikitrilariak**
12:00 **Meza eta birjinaren prozesioa**
13:00 **Dantza erakustaldia**
*Aiara Dantza Taldearen eskutik*
14:00 **Meza**
14:30 **HERRI BAZKARIA**
*Izoriako Arangutxi elkartearen eskutik*
16:30 **Falkoneria erakusketa**
16:30 **Igel-toka txapelketa**
16:30 **Briska txapelketa**
20:00 **Txahalaren zozekta**
*Jaiaren amaiera*

# Kobata San Bitores
## Irailak

### 2 Larunbata
12:00 **Meza**
13:00 **Artzain-txakur erakustaldia**
15:00 **Herri bazkaria**
18:30 **Soka-tira**







CONSTRUCCIONES
SITO UGARTE, S.L
BASERRI BERRITZEAK
TEILATUAK
KANPOALDEAK
BARRUALDEAK
ITXITURAK
PABILOIAK
Unika kalea 6, Aloria (Araba)
Tel.: 658 758 445 / 650 606 682 / 661 136 409
ugartezurimendi@gmail.com

JOKIN
Gora Aiarako jaiak!
JOAQUÍN IBARROLA GOBANTES
ARKITEKTO TEKNIKOA 656 794 948

Electricidad Albizua, S.L.
Tel. **608 87 05 13**
945 89 07 02
Aldaiturriaga poligonoa, E2
AMURRIO
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

# Abuztuaren 30ean eta 31n ospatuko dira Soxoko jaiak

Abuztua agurtzeko, bi egunez luzatuko dira Soxoko jaiak, abuztuaren 30etik 31ra. Ostiralean hasiko dira jaiak, San Emeterio eta Zeledonio gogoratzeko. 9:00etan jaurtiko dute txupina, eta kanpaiak irauliko dituzte segidan. Horren ostean, mendizaleek ohiko mendi martxari ekingo diote. 9:30ean izango da hitzordu hori.

Eguerdian, berriz, meza eskainiko dute, eta 13:00etan txapela jaurtiketa txapelketa egingo dute. Ez da, ordea, nolanahiko txapela jaurtiketa lehiaketa izango; parte hartzaileek Soxoko erara jaurti beharko dute eta. 19:00etan mus txapelketa izango da, eta sari handiak iragarri dituzte. Gauean Joselu Anayaken doinuek eta DJ Sospechoso de Spam musika jartzaile aiararren abestiek luzatuko dute jaigiroa

Larunbatean, San Ramon Nonatoren omenezko mezak emango dio bide egitarauari. 13:00etan talo jana eta igeltoka txapelketa egongo dira. Arratsaldean, aldiz, haurrentzat jolasak eta tute txapelketa nagusituko dira. Musean egin bezala, Tute txapelketan ere sari handiak iragarri dituzte irabazleentzat.. 21:00etan, ordea, herri parrillada prestatuko dute. 22:30ean Otegi “handiak” erromeriari ekingo dio, eta hamabietan mozorro festa eta bingoa egongo dira.



# Aiarako jaiak















ANETO
100% NATURAL




# Okondoko jaiak

## Abuztuak 8-25



**Jon Escuza del Campo**

OKONDOKO ALKATEA

Jaiak hastear dira! Okondoko alkate naizen aldetik, ohore handia da niretzat abuztuaren 9an eta 24an izango diren San Romanen eta San Bartolomeren omenezko ospakizunetara gonbidapena luzatzea. Aurten, inoiz baino gehiago, jaiak gure bereizgarri den aniztasunaren isla izatea nahi dugu. Okondo aparteko pertsonaz beteriko udalerria da, historia eta tradizio ezberdinak dituztenak, eta egun hauek aukera paregabea dira gure batasuna elkarrekin ospatzeko. Udalak ekitaldiz jositako egitaraua prestatu du, guztiok gozatzeko aukera izan dezagun, txikienetatik helduenetara. Auzokideak berriro elkartu ahal izateko aukera aparta. Alkate gisa, jai hauek errespetuz eta tolerantziaz ospatzearen garrantzia ere gogorarazi nahi dut. Pertsona bakoitza bakarra eta berezia da eta, hain zuzen ere, aniztasun hori da gure herria hain berezi egiten duena. Horregatik, jaiez giro onean eta alaitasunez gozatzera animatzen zaituztet, barreak eta une politak partekatuz eta aberasten gaituzten desberdintasunak eta aniztasuna errespetatuz. Eta, batez ere, eraso sexistarik eta xenofoborik gabeko jaiak ospatuz.

**Gora San Roman eta San Bartolome jaiak!
Gora Okondo!**

OKONDOKO
UDALA

Elkarrizketa

# “Aurkezle lanak egiten ditut jaietan euskararen presentzia ziurtatzeko”

**XABIER UGALDE GULIAS** 1980ko hamarkadan iritsi zen Okondora eta, nahiz eta tartean beste toki batzuetan bizi izan den, oso errotuta dago herrian. Ezustean harrapatu du aurtengo pregoilari izateko proposamenak, ezin sinetsirik erantzun ditu Aiaraldeak egindako galderak.




**Nola hartu zenuen albistea**?

Sorpresa handiz, egia esan. Eneritzek, jaietako zinegotziak, deitu zidan esateko aurtengo pregoilari izateko aukeratua izan nintzela eta nik ez nekien ezer, ezta hautaketa prozesurik zegoenik ere! Azaldu zidan izen batzuk zeudela proposatuta eta bozketan ni atera nintzela.

**Zer sentitu zenuen une hartan?**

Heldu berria naiz, 13 urte daramatzat herri honetan, eta ez dakit zer egin dudan pregoilari izateko... Pentsatzen dut badela makina bat jende, elkarte eta lagun pregoilari izan daitezkeenak hainbat arrazoirengatik, izan sortzaileak direlako, izan herrian hainbat aktibitatetan parte hartzen dutelako, izan jai ezberdinak antolatzen parte oso aktiboa direlako... Ez dakit baten batek txantxan proposatu ote ninduen eta beste batzuei ideia ona iruditu zaien (barrez)!

**Zer argudio eman dizkizute zu hautatua izateko?**

Hori bera galdetu nion nik Eneritzi. “Nik zer egin dut herrian?” galdetu nion, eta berak, “zu prest zaude beti behar dugunean, jaietan speaker lanak egiteko...”. Bai, ni prest nago, baina egia esango dizut, nik egiten dut nolabait euskararen presentzia ziurtatzeko horrelako kontuetan. Iruditzen zait askotan beste batzuk egiten dutenean erdarara jotzen dutela, ez dutelako hainbeste erraztasunik edo dena delakoagatik. Urte hauetan saiatu naiz beti herriko ekitaldietan aurkezle lanak egiten, baina, ideia horrekin, jaietan euskararen presentzia ziurtatzeko,

gutxieneko bat bada ere. Berak hori esan zidanean tontakeria bat iruditu zitzaidan, badago jende bat urte osoan zehar dagoena hor elkarte batzuetan hainbat konturekin, jubilatuekin, umeekin, dantzak direla, jaiak antolatzen, mendi taldea...

**Zein da euskararen presentzia herrian eta jaietan?**

Gure herrian euskararen presentzia oso txikia da. Umeentzako kontuak egiten direnean, hor bai, hor saiatzen dira gutxienez gauzak euskaraz antolatzen eta urtean zehar badira gauzak euskaraz. Baina, askotan, jaietan ez bada baten bat horren gainean egoten eta horren jarraipena egiten, euskaldunok pixka bat minduta sentitzen gara gauza guzti hauekin, euskarak ez daukalako apenas edo inolako presentziarik. Horregatik diot euskaldunak saiatu behar garela gure esku dagoenean eragiten euskarak gure herrian gutxieneko presentzia bat izan dezan.

**Zuretzako zein da jaietako ekintzarik bereziena?**

Goizean txapelketa gastronomikoak izaten dira eta azken urteetan beti egon naiz aurkezpenak egiten, horregatik horiek dira niretzako ekintzarik aktiboenak. Gero, beste bat mus txapelketa da, ez dakit ohituragatik edo beti nagoelako antolakuntzan laguntzen. Txapelketan parte hartu ahal badut, primeran, baina hori zailago izaten dut normalean.

*“Uste dut elkarteetan eta borondatez herrian hainbat gauza egiten ari direnei eskerrak eman behar dizkiedala”*

**Imajinatzen dut aurtengo jaiak bereziak izango direla zuretzat.**

Oso bereziak, benetan! Orain bai, derrigorrez egon behar dut ekintza guztietan (barrez). Eneritzi galdetu nion zein den pregoilari baten lana jaietan eta esan zidan zenbaketaren batean egon beharko dudala, sariak banatu... Horrelako gauzak, baina, seguru hortik egongo naizela, beraz, ez zait gehiegi kostatuko.

**Idatzita duzu irakurriko duzun pregoia?**

Ez dut idatzita, baina bai pentsatu dut zer esan nahi dudan; nire buruari galdetu diot ea zer esango diodan nik Okondoko herritarrei. Hasieran aipatu dudana azpimarratu nahiko nuke.

Batetik, uste dut elkarteetan eta borondatez herrian hainbat gauza egiten ari direnei eskerrak eman behar dizkiedala, haiek egiten duten lana oso garrantzitsua baita denon arteko bizikidetza hobetzeko bidean. Horrelako mezu bat heltzea nahiko nuke.

Bestetik, beste herri batzuetan bezala eta gaur egun gero eta gehiago, Okondora jende asko joan gara beste leku batzuetatik, izan Hego Amerikatik, izan Saharatik, izan Europa iparraldetik edo Euskal Herriko beste herri batzuetatik; bertara heldu gara lanagatik eta arrazoi desberdinengatik. Momentu honetan, bertan jaio ez garen eta herrian sustrairik ez dugun pertsonen multzo bat gaude, kanpotik etorri garenak.

Denontzako oso aberasgarria eta interesgarria da horiei guztiei ere aukera ematea halako ekimenetan parte hartzeko, bai jaietan eta bai antolatzen diren beste ekimen batzuetan ere. Iruditzen zait norberak bere ekarpena egiteak aberastu egiten gaituela. Batzuetan modu ezberdinak ditugu gauza horiek ikusteko, baina, uste dut denontzako aukera ona dela aberastasun horretaz baliatzea.

Eta, azkenik, gureak, propioak diren jaiak izan daitezen, denok egin dezagun ekarpena. Gutxi gorabehera hortik joango da diskurtsoa: bizikidetza, kultura, eta ekimenetan parte hartzen dutenei eskerrak ematea.







Elkarrizketa

# Abuztuaren lehen asteburuan abiatuko dute Okondoko udako jai egitaraua

San Roman auzoko jaiek emango diote hasiera Okondoko udako jai programari. Abuztuaren 5etik 9ra ospatuko dituzte bertako festak, larunbatetik asteazkenera.



Hiru jai egun antolatu dituzte Okondoko sanromanak ospatzeko. Bola, mahai-futbol, mus eta briska txapelketek nagusitasun handia izango dute egitarauan zehar, musika emanaldiei eta janariari tokirik kendu gabe. Ohiko abarketa jaurtiketa eta afari herrikoia ere egingo dituzte San Roman egunean.

Abuztuaren 5ean, larunbatean, goizean eta arratsaldean egingo dituzte bola txapelketak. Goizean bi orduz arituko dira, 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean hiru orduz, 17:00etatik 20:00etara. Igandean eta astelehenean atseden hartu ostean, asteartean berriz ekingo diote jai egitarauari bola-jokoarekin. Hiru orduko saioa egingo dute orduan ere, 17:00etatik 20:00etara. Tartean, Goyo Magoak 'Txirriski Mirriski' emanaldia egingo du eta 20:00etan trikitiaz girotutako poteoak eta odoloste-janak alaituko dituzte okondoarrak.

Gauean musikak dantzaraziko du San Roman: 22:00etan mariatxien txanda izango da eta 23:00etan disko jaiak hartuko die lekukoa. Nolanahi ere, kontzertuak ez dira izango gau horretan programatuko duten ekintza bakarra; izan ere, 23:00etan mus txapelketa egingo dute auzokideek.

**San Roman eguna**

Abuztuaren 9a da San Roman eguna eta, halabeharrez, auzoko jaietako egun handia. Eguerdian egingo dute santuaren ohiko ohorezko meza eta jarraian pintxoak eta 'Florentxu y sus muchachos' erromeria. Hurrengo jarduerak 13:00etako mahai-futbol txapelketa eta 17:30eko briska lehiaketa izango dira. Jarraian haurren txanda helduko da, 18:30ean umeen parkea zabalduko baitute, eta segituan edozein jaitan topatu ezin daitekeen jardueraren txanda helduko da, alpargata jaurtiketarena, hain zuzen. Larunbatean egingo dute tradizio bihurtu duten ekintza bitxia, 20:00etan

Edozelan ere, herri afaria izango da egun handiko ekimenik jendetsuena. Ohiturari jarraiki, larunbatean 21:30ean elkartuko dira auzokideak elkarrekin afaltzeko. Sabela beteta, dantzatzeko eta parranda egiteko beta izango dute, gauerditik aurrera disko jaia iragarri baitute, baita guztientzako txokolate-jana ere, inor gosez geratu ez dadin.

# San Roman Abuztuak

## 05 Larunbata

11:00 **Bolo txapelketa**
Bolatokian

17:00 **Bolo txapelketa**
Bolatokian

## 08 Asteartea

17:00 **Bolo txapelketa**
Bolatokian

19:00 **Goyo Magoa, “Txirriski Mirriski”**
*Magia familiarra*

20:00 **Odoloste-jana eta trikipoteoa**

22:00 **Mariatxiak**

23:00 **Mus Txapelketa**

23:00 **Disko Jaia**

## 09 Asteazkena

12:00 **San Romanen ohorezko meza**
Baselizan

12:30 **Pintxoak eta erromeria**
*Floretxu eta bere lagunak*

13:00 **Futbolin txapelketa**

17:30 **Briska txapelketa**

18:30 **Haurrentzako parkea**

20:00 **Alpargata jaurtiketa**

21:30 **Herri afaria**

00:00 **Disko jaia eta txokolate-jana**






CándidoBesa
UPATEGIA
Eskuernaga (Arabar Errioxa)
Tel.: 652 732 986 / 685 738 193
www.candidobesa.com





# San Bartolome Abuztuak

## 20 Igandea

12:30 **Meza**
Eliza
13:00 **Izalde Abesbatzaren konztertua**
14:00 **Herri Bazkaria**
Frontoia
17:00 **Musika**
Frontoia

## 22 Asteartea

12:00 **Haurren bola-joko txapelketa**
Bolatokia
16:00 **Futbol Txapeleketa**
Futbol zelaia
19:00 **Futbito patxanga**
Futbol zelaia
21:00 **Kuadrillen arteko lehiaketaren hasiera**
21:00 **Bingoa**
San Bartolome Plaza
22:00 **Karaoke eta DJ**

## 23 Asteazkena

11:00 **Paella lehiaketa**
11:00 **Bola-joko jaurtiketa**
Bolatokia
13:00 **Txupinazoa eta pregoiaren irakurketa**
*Xabier Ugalde Guliasen eskutik,*
San Bartolome Plaza
14:00 **Herri Bazkaria**
17:00 **Briska Txapelketa**
17:00 **Bola-joko jaurtiketa**
Bolatokia
17:30 **Kuadrillen arteko herri-kirolak**
San Bartolome Plaza
19:00 **"¡Dale Ramón!" antzezalana** *Trapu Zaharra Konpainia*
San Bartolome Plaza
22:00 **La Polaca, A&BShow eta DJ Asier Burguete**
San Bartolome Plaza

## 24 Osteguna

11:00 **Landare lehiaketa**
11:30 **Tailerrak eta aurpegi margotzea**
12:00 **Aquagym klasea**
Igerilekua
12:30 **San bartolome ohorezko meza**
13:00 **Trikitrixa eta buruhandiak**
13:30 **Txoripan dastaketa**
San Bartolome Plaza
13:30 **Landare lehiaketako sari banaketa**
16:00 **Futbito txapelketaren finala**
17:00 **Tute Txapelketa**
18:00 **Haurrentzako jolasak eta 'molto' lasterketa**
19:30 **"Legea Gu Gara"**
*Arabako Plazetan Jaialdia*
San Bartolome Plaza
21:00 **Eusko Label odoloste hamburgesak**
San Bartolome Plaza
22:30 **Luhartz eta DJ Flama**
San Bartolome Plaza

## 25 Ostirala

11:00 **Trotilla Txapelketa**
San Bartolome Plaza
11:30 **Haurrentzako Parkea**
Frontoia
12:30 **Hildakoen ohorezko meza**
Eliza
15:30 **Igel-toka txapelketa**
San Bartolome Plaza
17:00 **Mus Txapelketa**
San Bartolome Plaza
17:00 **Puzgarriak eta apar-festa**
Frontoia
17:00 **Plater tiroketa**
San Bartolome Plaza
20:30 **Dantzak**
San Bartolome Plaza
21:30 **Mozorro lehiaketa eta kuadrillen arteko lehiaketako sari banaketa**
San Bartolome Plaza
23:00 **DJ Markelin**
*Atsedenean txapela jaurtiketa lehiaketa*
San Bartolome Plaza








# Abuztuaren 20tik 25era izango da Okondoko jaietako bigarren txanpa

San Roman jaien ostean San Bartolome omentzeko ospakizunek hartu ohi dute Okondo abuztuan. Urtero bezala, musikak, txapelketa gastronomikoek eta askotariko lehiaketek girotuko dute herria bost egunetan zehar.



Ohi bezala, Adinekoen Egunarekin emango diote hasiera egitarauari. Izalde abesbatzaren kontzertua, herri bazkaria, Baizala taldearen dantza-erakustaldia eta musika izango dira abuztuaren 20an herriko nagusientzako prestatu dituzten jarduera nabarmenenak. Hurrengo egunean haurrek eta gazteek hartuko dute nagusitasuna: umeen bolo-jaurtiketa, zortziko futbol txapelketa eta patxanga, kuadrillen arteko txapelketaren hasiera, bingoa, karaokea eta musika izango dituzte jaien egun handiaren bezperan.

Abuztuaren 23a izango da txupinazo eguna, asteazkena. Txupinazoaren aurretik, paella-lehiaketa eta bolo-jaurtiketa egingo dituzte, 13:00etan jaien eztanda handirako gorputzak-berotzeko. Xabier Ugalde Gulias arduratuko da aurten jaiei hasiera emango dien pregoia irakurtzeaz. Hortik aurrera, jaiak ez du etenik izango gaueko ordu txikietara arte: briska-txapelketa, bolo-jaurtiketa, kuadrillen arteko herri-kirolak, Trapu Zaharra konpainiaren "¡Dale Ramón!" umorezko antzerkia, La Polacaren ikuskizuna eta Asier Burguete musika jartzaileak egongo dira bata bestearen atzetik.

**San Bartolome eguna**

Biharamunean goizean-goiz berrekingo diete jaiei, 11:00etan landare txapelketarekin. Segituan haurrentzako jolasak eta aurpegia margotzeko txokoa jarriko dituzte eta eguerdian aquagym saioa egingo dute igerilekuan. Jarraian, San Bartolomeren omenezko meza egingo dute Itzalde abesbatzak lagunduta, San Bartolome eguna baita abuztuaren 24a, eta 13:00etatik aurrera musikak eta janak berreskuratuko dute protagonismoa. Ordu horretan trikitilariak eta buruhandiak aterako dira herritik eta 13:30ean txoripanak banatuko dituzte. Bazkalostean futbito txapelketaren finala eta tute txapelketa egingo dituzte eta 18:00etan haurrentzako jolasak eta molto motor lasterketa izango dira. 19:30ean kale antzerkiaren ordua iritsiko da. Arabako Plazetan izeneko kale arteen zirkuituaren baitan, Barsanti konpainiak "Legea gu gara" antzezlana eskainiko du. Afaltzeko Eusko Labeldun odolosteak eta hanburgesak banatuko dituzte eta gauean Luhartz erromeriak eta Flana Djak izango dute herria dantzarazteko ardura.

**Azken txanpa**

Abuztuaren 25a izango da jaietako azken eguna, ostirala. Tortilla txapelketarekin abiatuko dute eguna eta goizean zehar haurrek parkea eta zezen mekanikoa izango dituzte jolasteko. Egun horretako meza hildakoen omenez izango da, 12:30ean.

Bazkalostean, igel-toka, mus txapelketa, puzgarriak, apar-festa eta plater tiroketa izango dira eta iluntzean dantzatzeko musika, mozorro lehiaketa eta kuadrillen arteko txapelketaren sari banaketa izango dira nagusi. 23:00etatik aurrera DJ Markelinek hartuko du lekukoa eta bera arduratuko da jaiei amaiera emango dien musika jartzeaz. Aurten ere, txapela jaurtiketa egingo dute atsedenaldian, eta horrekin agurtuko dituzte jaiak hurrengo urtera arte.





Babestutako edukia

# Urduñako kale eta auzoetako jaiak



**Iker Santocildes**

URDUÑAKO ALKATEA

Edozein egun izan daiteke berezia Urduñako hirian, ez du zertan egutegian markatutako data tipikoa izan behar. Urte osoan zehar kaleei bizia ematen dieten ekintza hauek mantendu ahal izateko, eskerrak eman behar dizkiegu Urduñak dituen elkarte anitzei haiek baitira dinamizazioaz arduratzen direnak. Dagoeneko izan dugu aukera Otxomaioetaz gogoz disfrutatzeko, baita 27 urteren ostean, Landatas auzoko bizilagunek berreskuratu duten festaz gozatzeko ere. Etorkizun hurbilera begira, gomendatzen dizuet agenda libratzea datozen auzoetako eta Larruazabalgo herrietako jaietara gerturatzeko aukera izateko. Badakit festa gogoa ez dela gelditzen baina hartu indarra! Gainera, iraileko lehenengo asteburuan Urdufolk jaialdia bueltan da jatorri eta kultura desberdinetako soinuak hurbiltzeko asmoz. Amaitzeko, nabarmendu behar da, auzoetako jaietako batzordeek musutruk eta elkarlanean garatutako esfortzua, haiek dira benetako protagonistak, itzalean lan eta lan aritzen direnak, denok goza dezagun. Bihotz-bihotzez, mila esker!

**Auzoetako jai-batzordekoak dira benetako protagonistak, itzalean lan eta lan aritzen direnak denok goza dezagun. Bihotzez eskerrik asko!**

URDUÑA Berezko hiria
ORDUÑA Ciudad natural




# San Roman
## Abuztuak

### 09 Asteazkena

09:30 **Bolanderak eta Diana**
*Getxa-Goi txistulariekin*
12:00 **Meza**
*San Roman ermitan*
13:00 **Porroitik edaten I. lehiaketa**
14:00 **Trikipoteoa**
*Orruño kalean*
16:30 **Mus txapelketa**
17:00 **Haurrentzako jolasak**
*Bihotzak Konpartsarekin*
19:00 **Txokolate-jana**
19:30 **Buruhandiak**
20:00 **DJ Juanma**
23:00 **Zezensuzkoa**
*Jaien amaiera traka*






Construcciones Cosme
IGELTSEROTZA OROKORRA
Sukaldeetako eta bainugeletako alikatatuak
Eraberritzeak · Gremioen kudeaketa
ARESPALDITZA
constructionescosme@gmail.com 630 435 673

ARTOMAÑA Txakolina
Zure ospakizunetan "Eukeni Apardunа"rekin topa!
EGIN ZURE ESKAERA!
ENOTURISMOA · GASTRONOMIA
610 33 41 37
www.artomanatxakolina.eus

# *Ate-joka daude Urduñako kaleetako jaiak*







## Kale Barria
## Abuztuak

### 14 Astelehena

| | |
|---|---|
| 16:00 | Txupinazoa |
| 17:45 | Gynkana txirrindulekin |
| 19:00 | Haurrentzako entzierroa trizikloekin |
| 20:30 | V. patata zuriketa |
| 20:30 | lehiaketa |
| 21:30 | Kaleko zinema |
| 23:00 | Bingo herrikoia |

### 15 Asteartea

| | |
|---|---|
| 11:00 | Suziri jaurtiketa |
| 11:30 | Buruhandiak |
| 12:30 | Dantza poteoa |
| 13:00 | Txapela jaurtiketa |
| 14:30 | Auzo bazkaria |
| 17:00 | Mus txapelketa |
| 18:00 | Piñata |
| 19:00 | Igel-toka txapelketa |
| 19:30 | Magia eta bentrilokia ikuskizuna |
| 20:30 | "Morrilloiaren ehiza" |
| 21:00 | Morrilloiaren jaitsiera |
| 21:30 | Parrillada |
| 22:00 | Erromeria |
| 00:00 | Zezensuzkoa |
| 00:15 | DJ |

### 16 Asteazkena

| | |
|---|---|
| 10:00 | Diana |
| 10:30 | *Suziri jaurtiketa* |
| 12:00 | Lore Eskaintza *San Rokeren horma-hobian* |
| 12:30 | Meza |
| 13:30 | Auureskua eta topa *San Rokeren horma-hobian* |
| 15:30 | Nagusien egoitzara bisita |
| 17:00 | Haurrentzako jolasak |
| 18:30 | Txokolate-jana |
| 19:00 | Buruhandiak |
| 20:00 | Zozketa |
| 20:30 | Traka *Jaien amaiera* |

# “La Antiguako auzokide guztiak elkartzeko unea dira jaiak”



**IRATI GARCIA ARBAIZAGOITIA** (Urduña, 2001) eta **EGOITZ LARRIETA URIBE** (Urduña, 2006) La Antigua auzoko bizilagunak dira. Txikitatik hartu dute parte auzoko jaien antolakuntzan, eta gaur egun jai batzordeko kide dira. Aurtengo egitaraua aurkeztu diote Aiaraldea Komunikabideari.

**Zer da aurtengo jaietarako prestatu duzuena?**

Egoitz: Azken finean, urteroko egitarauari eutsi diogu. Aurten irailak 8 barikua da, beraz, jarduera guztiak asteburu bakar batean bilduko ditugu. Barikuan mezaren ostean jokoak, txokolatada, buruhandiak eta bestelakoak egingo ditugu.

Zapatuan, berriz, ohiko mendi-martxa, tortilla lehiaketa, musika eskaintza... Gualdetxu MBT taldeko kideak etorriko dira haurrentzako duatloian laguntzera.

Ostiral zein larunbat gauetan Urduñako bi DJ etorriko dira, DJ Juanma eta DJ Ra.

**Nola bizi dituzue zuek Antiguako jaiak?**

Egoitz: Gure aitona-amonek edo gurasoek transmititutako zerbait da. Txikitatik egon gara auzoan parte hartzen. San Juan gauean, esaterako, betidanik lagundu izan dugu muntaketan.

Irati: Antiguako jaietan ere txikitatik parte hartu dugu: txokolatea banatu, buruhandiak atera... Ardurak hartzen jarraitzen dugu oraindik ere.

# Urduñako kale eta auzoetako jaiak

**Jai Batzordeko kideak zarete biak. Badago belaunaldi aldaketarik?**

Egoitz: Oraindik ere gure gurasoak daude antolakuntzan.

Gu biokin btera auzoko beste bi haur ere badaude, baina gazteegiak dira oraindik. Lan egiterako orduan, ordea, jende gehiago bertaratzen da; beti dago auzokideren bat laguntzeko prest.

**Zer garrantzia dute jaiek Antigua bezalako auzo batentzat?**

Irati: Auzokideak elkartzeko unea da. Jende guztia ateratzen da bere etxeetatik, amona guztiak elkartzen dira kalean... Oso polita da hori ikustea.

**Asko aldatu dira Antiguako Jaiak urteen poderioz?**

Egoitz: Aspaldi santutegiaren atzekaldean ospatzen ziren jaiak. Nire aitak nahiko gaztea zenean bertan ezagutu zituen. Hainbat urtez jaiak geldirik egon ziren, ez ziren ospatzen, ez dakigu zergatik. Berreskuratu zirenean, Iratiren aitonak, Patxik, gaur egungo tokira jaitsi zituen, santutegiaren behekaldera.

Irati: Santutegitik festak jaitsi zirenean bi txosna jartzen ziren, orain, berriz, bakarra. Urteren batean ere bigantxak ekarri egin zituzten. Urtez urte aldatuz doazen jaiak dira Antiguakoak.

## La Antigua Irailak

### 08 Ostirala

- 12:00 **Kanpai jotzea**
- 12:30 **Meza nagusia eta hamaiketakoa** Santutegian
- 17:30 **Txupinazoa**
- 18:00 **Haurrentzako jolasak**
- 19:00 **Duatloi jolasak** *Gualdetxu MBTTk antolatuta*
- 19:30 **Buruhandiak**
- 20:00 **Txokolate jana**
- 21:00 **DJ Juanma**

### 09 Larunbata

- 09:00 **Mendi martxa**
- 11:00 **Patata tortilla txapelketa**
- 13:00 **Patata-tortilla txapelketaren sari banaketa**
- 15:00 **Herri bazkaria**
- 17:00 **Briska eta Mus txapelketak**
- 17:30 **Puzgarriak eta apar-festa**
- 20:00 **Dantzaldia eta Karaokea**
- 22:30 **DJ Ra**
- 03:00 **Berakatz zopa eta zozketa**







Elkarrizketa

# “Toki askotan ikasi dut musika, baina musikari Urduñan egin naiz”



**ALEX LOPEZ** (Amurrio, 1983) baxujoleak Sensei Music Ensmable proiektuarekin irekiko du UrduFolk jaialdia irailaren 1ean. Esku artean dituen kontzertuez mintzatu da.

**Zuk irekiko duzu aurten UrduFolk Jaialdia. Zer prestatu duzu Urduñako kontzerturako?**

Sensei Music Ensambleren estreinaldia izango da. Duela hiru urte Avishai Cohen kontrabaxu jolearen inguruko proiektu bat abaitu genuen bere errepertorioaren kontzertu bat prestatuz.

Asko gustatzen zaidan kontrabaxu jolea da Avishai Cohen. Bera jazz konpositorea da, baina folka asko lantzen du. Bere abesti asko ladinoan edo ekialde hurbileko doinuetan oinarritutako abestiak dira. Beti esan diot Joseba Urruelari oso aproposa iruditzen zitzaidala UrduFolken jotzeko, azken finean jazza da baina folk doinuetan oinarrituta.

Aurten UrduFolken jotzeko gonbitea luzatu zidatenean, zerbait berezia prestatzea erabaki genuen. Are gehiago landuko dugu folka eta eszenatokira igoko den taldea ere handituko dugu. Orain arte musika instrumentala egin dugu eta Urduñako kontzerturako hiru ahots gehituko ditugu taldean. Guztira, 10 musikari izango gara, eta joko ditugun abesti asko berriak izango dira.

Oso gauza bitxia eta ez oso ohikoa aurkituko du entzuleak bertan,

# Urduñako kale eta auzoetako jaiak

normalean Euskal Herrian entzuten ez diren abestiak.

**Imaginatzen dut gogotsu egongo zaretela prestatutakoa jendaurrean aurkezteko.**

Hori da. 10 pertsonez osatutako taldea ez da gauza makala. Guretzako ere erronka handia da. Zazpikote moduan ibilbide txikia egin dugu, baina orain gehiago gara eta gauza batzuk aldatu beharra ditugu. Emaitza ikusteko gogotsu gaude, bai.

**Uribe Kostan bizi zara gaur egun, baina amurrioarra zara izatez. Berezia da zuretzat Urduñan, Aiaraldean, jotzea?**

Oso, oso berezia. Ilusio handia egiten dit estreinaldia eskaintzeak, nire taldearekin gainera. Nire ibilbidea Urduñarekin lotuta egon da hasieratik. Nik Amurrioko kontserbatorioan, musika eskolan, Algortan... ikasi dut musika. Baina, ni musikari Urduñan egin naiz. Orduak pasa ditut Iñaki Plazaren eta Kepa Calvoren estudioetan, euren proiektuetan... Urduñan ezagutu ditut ere musikari pila bat, eta beraiekin ere hamaika saltsatan ibili naiz. Ilusioa egiten dit Urduñara bueltatzeak.

**Azkenaldian beste hainbat proiektutan ere bazaude murgilduta.**

Uda bizia izaten ari da bai. Donostiako Jazzaldia hasi aurretik Altzerri klubean egon ginen Avishai Cohenen errepertorioa jotzen izan ginen laukotean. El Consorcio taldean ordezko baxu jolea naiz, eta uztailean kontzertua izan nuen Madrilen.

Bilbon badut hitzordu garrantzitsu bat. Abuztuan, txupinazo egunean, Guggenheim pareko eszenatokian mobida galanta prestatu dute, eta bertan egongo naiz. Iñaki Urangak, El Consorcioko abeslariak, kontzertu berezia eskainiko du. Oinarrizko taldeaz gain, non nik kontrabaxua joko dudan, hamairu haize tresnaz osatutako 'big band' bat eta Bilboko Orkesta Sinfonikoko 28 harizko instrumentu ere igoko dira eszenatokira; guztira 50 musikari inguru. Guzti horrek entsegu asko exijitzen ditu. Irailean,

*"Ni zuzeneko animalia naiz, eta kontzerturik gabeko boladak luze egiten zaizkit askotan"*

UrduFolkeko konztertuaz gain, Xabi Aburruzagarekin ere arituko naiz. Bukatzeko, urrian Iñaki Plazarekin kontzertu bat eskainiko dut Andorran.

Sei kontzertu dira guztira, baina oso desberdinak. Aurrekoan zenbatzen jarri nintzen eta 100 abesti baino gehiago dira guztira.

**Nola uztartzen dira hainbeste proiektu zure egunerokoan?**

Batzuetan ondo eta beste batzuetan, gauza asko pilatzen direnean, gauez ikasi behar ditut abestiak. Bi seme alaba ditut, oraindik txikiak dira. Egunean zehar ere beraiekin gora eta behera ibiltzen naiz, eta behin oheratuta daudela estudioan sartzen naiz. Badira oso nekatuta amaitzen dudan asteak.

Baina boladak dira. Musikan beti dira boladak. Batzutan topera zabiltza eta beste batzuetan ez duzu bolorik. Neguan, adibidez, ez dut ia zuzenekorik izaten. Nik beti esaten dut datorrena hartu egin behar dela. Ni zuzeneko animalia naiz, eta kontzerturik gabeko boladak luze egiten zaizkit askotan.

## UrduFolk Irailak

### 01 Ostirala

19:30 **El Trasno**
*Kaljira gaiten bandarekin*
Herrian zehar

21:15 **Sensei Music Ensamble eta Guadi Galego**
*Kontzertuak*
Foru Plaza

### 02 Larunbata

10:00 **Merkatu lokala**
Foru Plaza

13:00 **Matraka Culinary Center**
*Familientzako ikuskizuna euskaraz*
Foru Plaza

19:00 **El Trasno**
*Kontzertua*
Gernika Plaza

21:15 **Guillen Anguera Quartet eta Goxua N' Salsa**
*Kontzertuak*
Foru Plaza

### 03 Igandea

17:30 **Hitzaldi-solasaldia**
*'Dantzak' pelikularen inguruan, Telmo Esnal eta Gari Otamendirekin*
Aduana Bainuetxea

*"Oso gauza bitxia eta ez oso ohikoa aurkituko du entzuleak UrduFolkeko kontzertuan"*


GAP



Babestutako edukia

# Arrankudiagako jaiak

## Abuztuaren 14tik 22ra



### Txutxi Ariznabarreta

ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO ALKATEA

*Barriro ere, udagaz batera jaiak etorri dira. Giro ederrean ospatu doguzan Uribarriko sanpedroen eta Basakoetxeko erromeriaren ostean, hemen dira Andramari jaiak, ostean etorriko dira Atxetakoak eta Zolloko sanmartinak.*

*Ondo igarotzeko egunak dira, alaitasun eta umorez beteak. Hala ere, ezin dogu ahaztu jaietan ezingo direnak egon: joandakoak, gaixoak, ezinduak, presoak, exiliatuak eta herritik urrun dagozen guztiak. Geugaz izango doguz gure bihotzetan.*

*Baina, atsekabe guztien gainetik, guztiok zoriontsu bizitzeko herria egiteari ekin behar dautsogu: elkar zaindu, elkarbizitza sustatu eta ametsak eta bizipoza konpartitu. Urtez-urte lantalde zabaletan antolatzen diren jai guztiz partehartzaileak egiten doguz Arrankudiagan eta Zollon, eta hori funtsezkoa da gure komunitatea sendotu eta elkarbizitza sustatzeko. Eskerrik beroenak jai batzordeei eta jaien antolaketetan parte hartzen dozuen talde, elkarte eta lagun guztioi. Zuen lanari esker doguz jai hain herrikoi eta euskaldunak.*

*Goza dagiguzan jaiak askatasunean, berdintasunean eta euskeraz! Eraso sexistarik EZ! LGTBIQ+fobiarik EZ!"*

## Gora Arrankudiagako Andramari jaiak!

Arrankudiaga-Zollo Udala

Egitarauak

# Egitarau oparoa prestatu dute Arrankudiagako jaiak ospatzeko

Abuztuaren 14tik 21era luzatuko dira Arrankudiagako Jaiak. Herritar guztientzako egitaraua prestatu dute. Berakatz Eguna izango da jai-egun nagusia, eta Moonshine Wagon eta Trikizio taldeek osatuko dute musika eskaintza.



Arrankudiagako jaiek badute egitaraua. Abuztuaren 14an eta 15ean abiatuko dituzte festak, eta 19tik 22ra izango du segida. Andra Mari bezperan -abuztuak 14- arratsaldetik gauera luzatuko da egitaraua.Ohi legez, arratsaldeko 17:00etatik aurrera kamiseta banaketa, kalejira, marmitako lehiaketa eta tortilla txapelketa egingo dituzte Gizarte Etxearen inguruan. Egun horretan jaurtiko dute txupina, 20:15ean hain zuzen. Gauean, berriz, DJ Mariskal arituko da musika jartzen. Abuztuaren 15ean, aldiz, dianarekin esnatuko dute herria 10:00etan, eta meza nagusiaren ostean poteoa egingo dute dultzaineroek gidatuta. Arratsaldean, aldiz, herriko umeen pilota partidak izango dira nagusi, 19:00etatik aurrera frontoian. Iluntzeko antzerki emanaldiarekin bukatuko dute eguna, Trapu Zaharra konpainiaren eskutik, 20:30ean.

**Bigarren txanpa**

Bigarren txanpa ostiraletik astelehenera arte luzatuko da, hilaren 19tik 22ra. Aurretik, abuztuaren 16an eta 17an Futbito eta Mihiluze lehiaketetako kanporaketak egingo dituzte Gaztetxean. Abuztuaren 18an ‘Gaurko eta atzoko gazte eguna’

# *Abuztuaren 21ean bukatuko dira Arrankudiagako jaiak, Berakatz egunarekin eta Moonshine Wagon eta Trikizio taldeen kontzertuekin*





antolatuko dute. Horretarako, meza, mahai jokoak, edadetuen bazkaria eta erromeria prestatu dituzte. Arratsaldean Futbito eta Mihiluze lehiaketen finalak jokatuko dituzte Gaztetxean. Gaztetxetik atera gabe kontzertuak egingo dituzte 21:30ean, Ostrich Wedding, Aizkolariak eta Arrakala taldeak taularatuz. Abuztuaren 19an, larunbatean, umeen eguna egingo dute. Hala, kalejira, jolas parkea eta haurren bazkaria izango dira protagonistak eguneko lehen zatian, eta 16:30ean apar festak hartuko dio lekukoa ekimenari. Horrez gain, bolo tiradak eta Xaiborren ikuskizuna egongo dira, baita kanpamentuko proiekzioa ere.

Abuztuaren 20an, berriz, txakolin dastaketa, euskal presoen aldeko elkarretaratzea eta Kofradia Eguneko bazkariak beteko dute plaza. Kanturako tartea ere gorde dute, Idoia eta Roberto abeslarien eskutik.

Abuztuaren 21ean bukatuko dira Arrankudiagako jaiak, Berakatz Egunarekin. Futbol eta pilota partidekin gozatuko dute arratsaldean. 20:30ean odoloste jana egingo dute. Gaupasaren ardura, aldiz, Moonshine Wagon eta Trikizio taldeek izango dute, 23:00etatik aurrera. 05:00etan, baina, berakatz zopa banatuko dute gautxorien artean







# Abuztuak

## 14 Astelehena

17:00 **Kamisetak banatzea**
Plaza

18:00 **Kalejira**
Herrian zehar

18:00 **XXIV. Marmitako Lehiaketa**
*Izen ematea 18:00-18:30*

19:30 **XXV. Tortilla Txapelketa**
*Izen ematea 18:00-18:30*

20:00 **Trotilla eta marmitakoen aurkezpena**

20:15 **Txupinazoa**

23:00 **DJ Mariskal**

## 15 Asteartea

10:00 **Diana**
Herrian zehar

11:00 **Meza nagusia**
Eliza

12:30 **Poteoa**
*Dultzaineroek girotua*
Herrian zehar

19:00 **Pilota partidak**
Frontoia

20:30 **Trapu Zaharra**
*Antzerkia*





# Abuztuak

## 18 Ostirala

12:00 **Meza nagusia**
Eliza

12:45 **Mahai jokoak**

14:30 **Jubilatuen bazkaria eta erromeria**
Gizarte Etxean

17:00 **Futbito finala**
Gaztetxea

18:30 **Mihiluze finala**
Gaztetxea

19:30 **Txaranga eta pintxopotea**
*Gizarte Etxea, Batzokia, Iberlanda eta Gaztetxea*
Herrian zehar

21:30 **Ostrich Wedding, Aizkolariak eta Arrakala**
Gaztetxea

## 19 Larunbata

11:30 **Haurren kalejira**
Garondotik Elexaldera

12:00 **Haurrentzako jolas-parkea**
Elexalde

14:30 **Haurren bazkaria**
*Izen emateko epea abuztuak 15*
Gizarte Etxea

16:30 **Apar-festa**
Garondo

17:30 **Haurren bolo-tirada**
Bolatokia

18:30 **Boloak**
*J.I. Larrazabal VII. memoriala*
Gizarte Etxea

19:00 **Xaibor**

21:30 **Kanpamentuko proiekzioa**



## 20 Igandea

10:30 **Diana**
Herrian zehar

11:00 **Meza nagusia**
Eliza

12:00 **Txakolin dastatzea eta erakusketa**

13:00 **Elkarretaratzea**
*"Denok batera presoak etxera!"*
Plaza

14:00 **Haurren kofradia bazkaria**
Eliz ataria

14:30 **Kofradia bazkaria**
Eliz ataria

16:00 **Kantuak Idoia eta Robertorekin**
Eliz ataria

20:00 **Dantzaldia**

## 21 Astelehena

16:30 **Futbola**
Iberlanda

19:00 **Pilota partidak**
Frontoia

21:30 **Odoloste-jana**
Herriko tabernetan

23:00 **Moonshine Wagon eta Trikizioa**
Plaza

05:00 **Berakatz zopa**
*Jaien amaiera*
Plaza



# *Dena dago prest Atxetako jaiei hasiera emateko*



Irailaren 16an jaurtiko dute Atxetako jaietako lehenengo suziria. 12:00etan izango da txupinazoa, eta jarraian haurrentzako jolas parkea atonduko dute, tailer, puzgarri eta bestelako jolasekin. 12:30ean marmitako eta patata tortilla txapelketari emango diote hasiera. Epaimahaiak 14:30ean iragarriko ditu lapiko irabazleak eta parte hartzaile guztiek batera bazkalduko dute. Arratsaldean, haurrentzako hainbat jarduera eskainiko dituzte, 16:00etatik aurrera: makillaje tailerra, puzgarriak, buruhandiak... egongo dira. 17:30ean Mirikik dantzan jarriko ditu auzoko gazteenak, eta 18:30ean txokolatada herrikoiaren txanda izango da. 19:00 Inguma taldeko lagunek dantza-plaza gidatuko dute. Festetako lehenengo eguna agurtzeko odolosteak jango dituzte 21:00etan eta Iratzar erromeriak dantzaldia eskainiko du 22:30ak aldera. Igandean, irailak 17, meza eskainiko dute 12:30ean eta herri bazkaria egingo dute 14:30etan. Elvi Bentrilokuak arratsaldeari umore puntua jarriko dio, 18:00etan. Jaiak XXXII. Igel-toka txapelketarekin agurtuko dituzte.

## Atxeta
## Irailak

### 16 Larunbata

| | |
|---|---|
| 12:00 | **Txupinazoa** |
| 12:00 | **Tailerrak, puzgarriak eta jolasak** |
| 13:00 | **Marmitako eta Patata-tortilla txapelketa** |
| 14:30 | **Sari banaketa eta bazkaria** |
| 16:00 | **Makillajea, puzgarriak eta jolasak** |
| 17:00 | **Buruhandiak** |
| 17:30 | **“Mirikirekin Jolastu eta Dantzatu”** |
| 18:30 | **Txokolate-jana** |
| 19:00 | **Dantza plaza** *Inguma taldearekin* |
| 21:00 | **Odoloste jana** |
| 22:30 | **Iratzar erromeria** |

### 17 Igandea

| | |
|---|---|
| 12:30 | **Meza** |
| 14:30 | **Herri bazkaria eta Bingoa** |
| 18:00 | **Elvi Bentrilokua** |
| 19:15 | **XXXII. Igel-toka txapelketa Sari banaketa** |
| 20:00 | *Jaien amaiera* |




AYUNTAMIENTO
EL BOLi
LAGUNAK

*Babestutako edukia*



# *Amurrioko jaiak*

## *Abuztuak 12tik-17ra*



**Txerra Molinuevo**

*AMURRIOKO ALKATEA*

*Aiaraldeko auzokide agurgarriak Ohore bat da niretzat aurten ere egun hauetan zuei zuzentzea. Iritsi da espero zenuten unea, heldu da Iguarrako Amurriora eta sei jaiegun ekarri ditu dibertsioz, giro onez eta errespetuz blai. Azkenean, Amurrion dira San Roke jaiak. Guztiok, bai amurriarrok zein inguruko herrietan bizi zaretenak gogotsu espero ditugun jaiak. Aurten eskuartean duzuen programak ekitaldi anitz ditu, udalerriko txoko bakoitza kolorez, musikaz eta jai-giroaz betetzeko. Arrazoi desberdinak direla eta, jai hauek guztientzat bereziak dira eta gure esku dago bizikidetza ona izatea. Ildo horretatik, guztion ardura da jai solidarioak, inklusiboak eta indarkeria-matxistarik gabekoak izatea. Halaber, Iñaki Bea aurtengo pregoilariak urte berezia biziko du. Urrezko GUK saria jaso du, eta futbolaren munduan arrakasta ugari bizi izan ditu, bere jatorria eta herri eder hau ahaztu gabe, futbolari eta, batez ere, pertsona gisa hazten ikusi baitzuen. Egun hauek zure adiskide kutunenekin, familiarekin eta lagunekin gozatzea espero dut, kezkagarria suertatzen zaizuena egun hauetan alde batera utzita. Gainera, gogora ekarriko ditugu arrazoi desberdinengatik gure artean egon ezin daitezkeenak. Jantzi dezagun jaietako zapia eta arropa eta goazen gozatzera. Ondo pasatu jaietan!*

## Gora Amurrioko jaiak! Gora Iguarrako!

AMURRIO
UDALA
AYUNTAMIENTO

# *“Kuadrillak dira Amurrioko jaien ikurra”*



**IÑAKI BEA** (Amurrio, 1978) futbolari profesionalak jaso du Urrezko Guk Saria eta Amurrioko Jaietako pregoilaria izango da. Ilusio handia eragin badio ere, uste du Amurrion elkarte askok ere merezi dutela aitortza.

**Nola jaso zenuen txupinero izateko ardura eta Urrezko Guk Saria?**

Ezustekoa izan zen. Gogoratzen dut ‘Los Pajaritos’ Numanciako futbol zelaian nengoela eta alkateak deitu zidala jakinarazteko. Pozik, ez nuen espero. Inoiz ez nuen pentsatu aitortza horretan eta ilusioa sortu zidan.

**Nolakoa izan zen Urrezko Gukaren gala?**

Oso ona. Saria jaso nuenean azpimarratu nuen Urrezko Guka jaso duen jende guztiak merezi izan duela bere lan boluntarioagatik. Egia da nik beti esaten dudala Amurriokoa naizela eta harrotasunez aipatzen dudala. Niretzat Amurrio bikaina da eta kuadrillakoak oso amurrioarrak izan gara beti. Hala ere, nik Amurrioko izena zabaldu dut nire lanagatik, eta Amurrion elkarte pilo bat dago dirurik edo dirua galduta lan egiten dutenak. Uste dut jende pilo dagoela nik baino meritu handiagoa duena. Izan ere, eurekin alderatuta, nik ez dut ezer egin amurrioarren alde. Urrezko Guk Saria jaso dutenen zerrenda ikusiz gero, elkarlanean

oinarritutako elkarte ugari dago, jendea laguntzeko.

**Zer moduz pregoia?**

Badakit zer esango dudan. Saiatuko naiz ahalik eta inklusiboena izaten eta politikoki zuzena. Ez da erraza idaztea, baina jadanik egin dut. Hala ere, zenbait mezu argi daude; guztiok gozatu behar ditugula jaiak, espero dugula eraso matxistarik ez egotea eta kuadrillekin bizitzea jaia. Izan ere, ni Euskotarrakekoa naiz eta kuadrillen giroan oso ondo pasatzen dut. Niri jaiek ematen didate aukera urte osoan ikusten ez dudan jendearekin topo egiteko eta oso polita da; bigantxa eta zekorketik gabe eta tabernekin irekita.

**Kirolari batentzat nolakoa da jaiei buruz idaztea?**

Egia da futbol jokalari profesionala izan naizenez, oso gutxi bizi izan ditudala Amurrioko Jaiak. 2003an Murtziara joan nintzen jokatzera eta 2012ra arte ez nintzen itzuli. Garai horretan, Promosport enpresan ari nintzen lanean eta bizpahiru egun hartu nituen Amurrioko jaiak bizitzeko.

**Futbol jokalari profesionala zinenean eta aurredenboraldian edota denboraldian zeundela, pentsatzen zenuen Amurrioko Jaietan?**

Niri pena gehien ematen zidan kuadrillek antolatutako ekintzak galtzea. Entzuten nienean lagunei garagardoak edan zituztela, edo norbaitek ligatu zuela edo oso ondo pasa zutela, ez zen gogorra, baina ikusten nuenean jendea kuadrillaz jantzita, ez egotea izugarria zen. Hori ezin dugu galdu. Hori da Amurrioko jaien ikurra. Amurrioko jaietan pentsatzen dudanean, burura etortzen zaidana da kuadrillen ekintza sorta.

**Aaurten nolakoak izango dira zure jaiak?**

Amurrio Traileko txosnan txanda egin behar dut. Cristina neskalaguna -Murtziakoa da- lehenengo aldiz etorriko da Amurrioko jaietara eta estreinako aldiz jantziko du Euskotarrak kuadrillako arropa. Hasieran nire lagunen kuadrillako bazkaria egin behar genuen, baina Euskotarrakek belaunaldi guztien bazkaria antolatu du eta bertan behera utzi dugu horretan parte hartzeko. Polita da ikustea jende heldua, gazteak, umeak... Hamaika istorio aterako dira.

## *“Polita izango da kuadrillako jende heldua, gazteak, umeak...ikustea; hamaika istorio aterako dira”*

**Urte gorabeheratsua izan da zuretzat Numancian, esanahi berezia izango dute jaiek?**

Numanciatik ateratzea oso gogorra izan da, baina drama igaro dut jadanik. Uste dut taldeak eta klubak potentziala dutela, baina ez dago ondo antolatuta. Ez nuen espero denboraldia ez bukatzea, baina atzean utzi dut. Estonian egon naiz hamabost egunez euren selekzioarekin, entrenatzaileak deitu ninduen eta. Bera suitzarra da eta proposatu zidanean laguntzea ez nuen gehiegi pentsatu. Esperientzia berria izan da eta orain itxaron behar dut.

Ekaina eta uztaila gogorrak izan dira, klubek erabaki behar baitute zein entrenatzaile izan, baina igaro da. Ingelesa ikasten ari naiz eta atea irekita daukat atzerrira joateko. Beste kultura bat ezagutu nahi dut eta Espainiako Estatuan egoera ezagutzen dut eta ez da erraza. Entrenatzaile pilo dago.  Orain gozatzeko unea da. Irailean ekingo diot berriro partidak ikusteari eta bitartean jarraituko dut jendearekin hitz egiten ea aukeraren bat sortzen den.



# Jaietako ordezkariak




## ARRITXU TRUJILLANO
El Boli

**Zein da Amurrioko jaietako zure ekintzarik gogokoena? Zergatik?**

Nire ekintzarik gogokoena karrozen desfilea da. Karrozen atzean dagoen lana izugarria da, hilabete osokoa. Gazteon inplikazio eta gogoak 16ko gauean ikusten dira.

**Zer ezin da falta Amurrioko jaietan?**

Kuadrillen arteko harremanak eta giroa jaietako egunetan baita lehenagoko asteetan ere ezin dira falta.

**Zergatik erabaki zenuen El Boli kuadrillan sartzea?**

Nire aita El Boli kuadrilla sortu zuten kideetako bat da. Kuadrilla galtzear zegoen, eta berpizteko eta jende gazte gehiago egoteko sartu nintzen.

**Zer aurkeztuko duzue aurtengo karrozetan, eta zergatik?**

Musika festibal baten errepresentazioa egingo dugu. Pentsatutako ideien artean bozketa egin genuen, eta kuadrilla osoari gehien gustatu izan zitzaion ideia izan zen.

**Zein da jaietako bokatarik onena?**

Txosnetan konpainia onean hartutako edozein bokata da goxoena.

**Zer dute Amurrioko jaiek Laudioko jaiek ez dutena?**

Kuadrillen osaketa Amurrion eta Laudion desberdinak dira. Hemen, nahiz eta lagun talde desberdinetan egon, guztiok nahastu egiten gara jaietako sei kuadrilletan.

## JONA MORILLO
Herriarenak

**Zein da Amurrioko jaietako zure ekintzarik gogokoena? Zergatik?**

Kuadrillak antolatutako bazkariak, herriko jendea biltzen dutelako. Ezinbestekoak dira.

**Zer ezin da falta Amurrioko jaietan?**

Kuadrillen arteko sokatira eta zurrakapoteren ibilbidea.

**Zergatik erabaki zenuen Herriarenak kuadrillan sartzea?**

Kuadrillako kideek osatzen duten giroa osasuntsua eta alaia delako.

**Zer aurkeztuko duzue aurtengo karrozetan, eta zergatik?**

Udari erreferentzia egingo duen hondartza eta igerileku giroko karroza, Amurrioko jendeak urtaroaren klima eta sentimendua bizitzeko.

**Zein da jaietako bokatarik onena?**

Jaietako bokatarik onenak solomo-gaztaduna eta oilasko-bularki birrineztatuduna dira.

**Zer dute Amurrioko jaiek Laudioko jaiek ez dutena?**

Amurrioko kaleen eta inguruen izaera dinamikoagoa da, jaien biztanle mugimendua arinagoa baita. Gurdiak eta zurrakapote ibilbidea ditu, Laudiok ez dituenak, eta txosnaguneren tokia zabalagoa da.

# Amurrioko jaiak

## ALAITZ JIMÉNEZ
Euskotarrak

**Zein da Amurrioko jaietako zure ekintzarik gogokoena? Zergatik?**

Amurrioko jaietako nire ekintzarik gogokoena txupinazoa da. Amurrioko jende guztia elkartzen da gauza bera ospatzeko, jaietako hasiera, izugarri hunkitzen nau. Betidanik bizi izan dut, baina aurten era ezberdin batean, goitik ikusteko aukera izango dut. Oso hunkituta eta urduri nago.

**Zer ezin da falta Amurrioko jaietan?**

Amurrioko jaietan ezin dena falta zurrakapotea da. Iraganeko tradizio oso berezia da, nola kontserbatu dugun oso polita iruditzen zait. Eta hurrengo belaunaldiek tradizio hau mantentzea espero dut.

**Zergatik erabaki zenuen Euskotarrak kuadrillan sartzea?**

Nire aitonak bere lagunekin nire koadrila sortu zuen, Euskotarrak. Oso harro sentitzen naiz koadrilla honek dama izateagatik . Nire familia guztia kuadrilla honetakoa da, odolean eramaten dela esango nuke.

**Zer aurkeztuko duzue aurtengo karrozetan, eta zergatik?**

Aurten gure karrozaren gaia Egipto da. Denon artean aukeratu dugun gaia da, denok ados geunden. Iruditzen zitzaigun gai honek karroza on bat burutzeko jokoa ematen zigula.

**Zein da jaietako bokatarik onena?**

Ogitartekorik onena hirugiharduna da, zalantzarik gabe. Baina, odolkien eguneko odolkiak ere ezin dira falta.

**Zer dute Amurrioko jaiek Laudioko jaiek ez dutena?**

Amurrio herri txikiago bat izan arren, Laudiok baino tradizio sendoagoak dituela esango nuke. Antzinatik elkartzen ditugu jaietako kuadrilla ezberdin hauek, non betiko lagunak lehiakide bihurtzen baitira jaietako momentu askotan eta gure artean sortzen diren "pike" txiki hauek, karrozetan, adibidez, giro ezberdin bat sortzen baitute eta berezi bihurtzen baitituzte Amurrioko jaiak.




## ANDERE MORILLO
Txabolakoak

**Zein da Amurrioko jaietako zure ekintzarik gogokoena? Zergatik?**

Nire ekintzarik gogokoena zurrakapotea da, gazte guztiok elkarrekin egiten baitugu ibilbidea kuadrillen zurrakapoteak dastatzeko.

**Zer ezin da falta Amurrioko jaietan?**

Zurrakapotea eta karrozak.

**Zergatik erabaki zenuten Txabolakoak kuadrillan sartzea?**

Kuadrilla sortu zenetik nago barruan, nire lagun baten anaiaren lagunek kuadrilla sortzeko asmoa zuten eta nire lagunak eta nik aldaketa bat nahi genuen eta kuadrilla sortzeko laguntza emateko gogoa geneukan.

**Zer aurkeztuko duzue aurtengo karrozetan, eta zergatik?**

Aurtengo karrozetan planeta atzerritar batean dagoen espazio-ontzi bat aurkeztuko dugu. Kuadrillaren lehen urtean lurra konkistatu genuen tanke batekin eta iaz Titanic ontziarekin konkistatu genuen itsasoa, aurten espazioa eta planeta atzerritarrak konkistatzeko garaia da.

**Zein da jaietako bokatarik onena?**

Gure jaietako bokatarik gogokoena odolki bokata da.

**Zer dute Amurrioko jaiek Laudioko jaiek ez dutena?**

Laudiokoek ez dituzte Amurrion bezalako kuadrilla hain handiak eta batuak, herriko jendearen artean dagoen hurbiltasun sentsazioa bereizgarria da Amurrion. Horrez gain, karrozak haiengandik bereizten gaituzte, gainera, karrozak sortzeko lanak kuadrilletako jendea batzen du jaien aurretik ere.

# Kuadrilak

## NAIA FERNÁNDEZ
Dantza Lagunak

**Zein da Amurrioko jaietako zure ekintzarik gogokoena? Zergatik?**

Karrozen desfilea da. Azken finean, jaiak hasi baino hilabete bat lehenago edo gehiago hasten gara prestatzen eta, hortaz, esan dezaket momentu horretatik aurrera hasten direla jaiak niretzat, karrozak egiten ditugun asteetan zehar jaietan dagoen kuadrilla arteko giro berdina sentitzen dudalako eta hori asko gustatzen zait.

**Zer ezin da falta Amurrioko jaietan?**

Amurrioko jaiak ez lirateke Amurrioko jaiak izango zurrakapoterik gabe. Txupinazo ostean herritik zehar goaz kuadrilla bakoitzak prestatutako zurrakapotea dastatzen dugun bitartean, musikarekin batera. Momentu hau ezin da falta gure jaietan kuadrillak elkarrekin ikusten ditugun lehen momentuetariko bat delako eta, hortaz, hor jaiei hasiera ematen diegu ofizialki.

**Zergatik erabaki zenuen Dantza Lagunak kuadrillan sartzea?**

Txikia nintzenean, Euskotarreko arropa eramaten nuen, baina nire familian ez zegoen tradizio handirik kuadrilla batena edo beste batena izateko. Horregatik, 6 urte nituela nire ahizparekin batera beste kuadrilla baten arropa eramatea pentsatu genuen, kasu honetan, Dantza Lagunakena. Esan dezakegu Dantza Lagunak kuadrillan sartzeko erabakia pentsatu barik egin nuela, baina oso pozik nago duela 15 urte hartutako erabakiarekin, gaur egun ez bainuke kuadrillaz aldatuko.

**Zer aurkeztuko duzue aurtengo karrozetan, eta zergatik?**

Aurten 'Charlie y la fábrica de chocolate' filmean oinarrituko da gure karroza. Nahiz eta hainbat ideia desberdin izan, bozketa baten bitartez hau atera zen irabazle. Uste dugu nahiko aukera ona dela, karroza koloretsua eta deigarria izango delako, eta gure karroza guztietan bezala, ez dira musika eta festa faltako.





**Zein da jaietako bokatarik onena?**

Gustatuko litzaidake erantzun original bat ematea, baina, egia esan, jaietan egon ala ez nire bokata gogokoena beti izango da solomoa, gazta eta piper gorriekin. Beraz, aukera dudan bakoitzean hori eskatzen dut. Hala ere, nahiz eta bokata ez izan, jaietan jateko nire gauzarik gogokoena taloa da; baina, zoritxarrez, duela pare bat urtetik hona Amurrion ez dago jateko aukerarik..

**Zer dute Amurrioko jaiek Laudioko jaiek ez dutena?**

Amurriok duen ekintza berezienetariko bat karrozen desfilea da, lehen esan dudan moduan, gehien gustatzen zaidana da, eta hortaz, aipatzekoa. Beste desberdintasun bat bi herrien artean kuadrillen kontua da. Laudioko kuadrillak lagunen kuadrillak dira eta Amurrion, berriz, ez, hau da, kuadrilla bakoitzean adin desberdineko jendea dago, batzuk aurretik ezagutzen ez direnak eta nire ustez oso dibertigarria eta onuragarria da, jende berria ezagutzeko eta urtean zehar denbora gehiegi pasatzen ez duzun pertsonekin egoteko.

## IZARO CUADRA ETA ANE OLABARRIA
Trot-Art

**Zein da Amurrioko jaietako zuen ekintzarik gogokoena? Zergatik?**

Guretzat karrozen desfilea. Amurrioko jaietako konturik aipagarriena dela uste dugu eta guk gehien disfrutatzen duguna.

**Zer ezin da falta Amurrioko jaietan?**

Zurrakapotearen ibilbidea ezinbestekoa da kuadrilla guztiek dantzatzen, hitz egiten eta ondo pasatzen gaudelako.

**Zergatik erabaki zenuten Trot Art kuadrillan sartzea?**

Trot Art oso kuadrilla atsegina delako eta denon artean oso tratu xumea dugulako, ezin dugu kuadrillaz aldatzea pentsatu ere egin.

**Zer aurkeztuko duzue aurtengo karrozetan, eta zergatik?**

Aurten Antzinako Txinari omenaldia egitea erabaki dugu. Ikaragarria dela uste dugu, oso deigarria da.

**Zein da jaietako bokatarik onena?**

Solomoa piperrekin, piperrekin edozein aukera ona da.

**Zer dute Amurrioko jaiek Laudioko jaiek ez dutena?**

Sei kuadrillen esentzia eta, beraz, karrozak eta kuadrillen jarduerak. Azkenean, gainontzeko herrietatik ezberdina den kuadrilla kontzeptua izanik, lagun kuadrillaz aparte adin ezberdinetako jendea ezagutzeko eta partekatzeko aukera ematen dizu.



Imanol Sarasola · David Gabiña

MANTENIMIENTO Y SERVICIOS

- ALTZARIEN GARRAIOA ETA MUNTAKETAK.
- ETXEETAKO MANTENTZE LAN INTEGRALAK.
- KOMUNITATEETAKO MANTENTZE-LAN INTEGRALAK.
- PERTSIANEN KONPONKETAK.
- TXIMINIEN GARBIKETAK IZAN ITZAZU BETI PREST!

Lexarraga kalea 10, Amurrio Tel: 655 723 674 · 615 714 932
e-mail: ji.mantenimiento@gmail.com

MAPFRE AMURRIO

BIZITZA-ASEGURUAK, KOMUNITATEAK ETA AUTONOMOENTZAKO ASEGURUAK...

· ISTRIPU- ETA BAJA-ASEGURUAK
· MEDIKU ASEGURUAK
· AURREZKI ASEGURUAK
· B.G.A.E. (Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak)
· BIZIARTEKO ERRENTAK
· ENPRESEN DIBISIOAK
· ETXE ASEGURUAK
· HILETA ASEGURUAK

Jose Madinabeitia 5, behea AMURRIO Araba / www.mapfre.com/oficinas/0114
Tel. 945 39 31 31 Fax. 945 89 35 54 casteca@mapfre.com

Ondo pasa!
Amurrioko jaiak
AMAURRE
IKASTETXEA · BIDAIDE FUNDAZIOA
Dionisio Aldama Kalea 16, 01.470 Amurrio
Tfnoa.: 945 393 544
info@amaurre.eus

GUK CAFÉ
ASKOTARIKO PINTXOAK
Olagarroan eta bakailaoan espezializatuak
Iturralde kalea 7, Amurrio (Araba)
Tel. 671 42 46 86

selene frutadenda

- ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
- 0KM PRODUKTUAK
- GARAIKO FRUTAK ETA BARAZKIAK
- EGUNERO IZA OKINDEGIKO OGIA
- NEURRIRA EGINDAKO FRUTEN ETA BARAZKIEN SASKIAK

UDAKO ORDUTEGIA
Uztailean eta abuztuan 9:00etatik 13:30ak arte

Gora Amurrioko jaiak!

· Landako kalea 1, Amurrio · 945 092 550 @frutadenda_selene

RUBIK TABERNA
Boriñaur Enparantza, 1, 01470 Amurrio, Araba
- 945 89 07 20 -

Lasai TABERNA
Bazkariak, afariak eta kubatak ematen ditugu, dena giro paregabean eta musikarekin.
Aiara kalea 1, behea (AMURRIO) · 604 81 75 80

jaietan edo nonahi zaudela ...
... euskaraz egin!
Aresketa ikastola
www.aresketaikastola.eus

# Abuztuak

## 11 Ostirala

11:00 **Paella txapelketa** *Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Parkea

11:30 **Amurrio Hiribildua Pilota-Txapelketako finalak**
Udal pilotalekua

15:15 **Bingo musikatua**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Parkea

18:00 **Haurrentzako jolasak eta puzgarriak**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Parkea

19:00 **Pintxopote musikatua Ugarte Otxotearekin**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Herrian zehar

21:00 **Jai Herrikoien aldeko txupina**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Parkea

21:15 **Gheiser, Akuerdo Sindikal eta DJ Desi eta Presi**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Gazte Karpa

22:00 **Profesional partidak**
*Larrazabal-Eskirzo Urrutikoetxea-Morgaetxebarria*
Udal pilotalekua







# Abuztuak

## 12 Larunbata

12:30 **Kuadrillen kalejira Battuere batukadarekin**
Herrian zehar

13:30 **Kuadrillen aurkezpena**
Juan Urrutia Plaza

14:00 **Kuadrillen kalejira**

17:00 **Kale animazioa** *Betijai fanfarrearen eskutik*
Herrian zehar

17:45 **Jaien pregoiaren irakurketa** *Iñaki Bearen eskutik*
Udaletxeko areto nagusia

18:40 **Jaien kuadrilletako ordezkarien aurkezpena**
Udaletxeko areto nagusia

19:00 **Indarkeria sexistarik gabeko gunea**
*Emagin eta EHko Bilgune Feministaren eskutik*
Larrinaga kalea

19:00 **Txupinazoa eta Iguarrakaoren jaitsiera**
Juan Urrutia Plaza

19:15 **Rock Kalean elektrotxaranga**
Herrian zehar

22:00 **Cuatro Bancos, Su Ta Gar eta Remember Diskofesta**
Juan Urrutia Plaza

01:00 **Jo Ta Ke erromeria eta DJ 2Mino**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Gazte Karpa









www.izanamurrio.com

# Izan AMURRIO

amurrioko merkatarien elkartea

Herrian bizi, herrian erosi

ZERBITZUAK BEZEROA ONLINE DENDA OSTALARITZA MERKATARITZA

Gora Amurrioko jaiak!

A+A
adi grafik
FAKTORIA
Ortopedia AMURRIO
aranoa
ARCOS DE QUEJANA
ARTOMAÑA Txakolina
Asesoría Aiala
azules Vestimos tu vida
BAI BADA!
BASUALDO KIROLAK
BVRVTXAGA HARAGI INDUSTRIAK
CASTRO
CuadraBus
ECOMOBEL hogar
El Rinconcito
expert izaskun
ELEKTROHOB
entre punto y puntada
GANCEDO AMURRIO
GA Gráficas Amurrio Impresión Digital · Diseño Gráfico
hiT!
HURBLAN
JF HAIR BEAUTY & NAILS
JARE PHOTOGRAPHY
KAPRITX
Kb KATIBEL
koba CYCLING
BAR LA TERRAZA
Lambarri Relojería - Joyería
SANZ
arberas ferretería industrial
FOTO ARREGI
lur natur denda
LUYANDOPTICOS
Madis JOYEROS
DISEÑO GRÁFICO - PUBLI - WEB MANU CAMPOS
MAPFRE
marilierra
Mirela Nails & Beauty
plaza amurrio, s.a.
INSTALACIONES RAGA IBARRONDO
selene frutadenda
PELUQUERIA Spiral
susana CENTRO DE ESTÉTICA
TABERNA FRONTON
Karisma
EGUILUZ moda y color
ZA ZULUETA ABOGADOS
TELMER CORTINAS, LENCERÍA Y ROPA DE HOGAR
New Jolan
centro óptico josu

# Egitarauak

## Abuztuak

### 13 Larunbata

**09:30** **XII. Marmitako Txapelketa**
*Su-Gozotan gastronomia elkarteak antolatuta*
Juan Urrutia Plaza

**11:00** **Haurrentzako Parkea**
Parkea

**11:00** **Makilaren entrega herriko pertsona nagusienei**
Udaletxeko areto nagusia

**11:00** **Aldi bereko xake partidak**
*Amurrioko Xake Taldearen eskutik*
San Anton Plaza

**11:30** **Kale animazioa** *Betijai fanfarrearen eskutik*
Herrian zehar

**11:30** **Meza herriko adinekoentzat** *Mariaka abesbatzaren eskutik*
Andra Mariaren Parrokia

**12:00** **Buruhandiak**
Juan Urrutia Plaza

**12:00** **Kalejira** *Amurrioko Txistuzaleak taldearen eskutik*
Herrian zehar

**12:30** **Mokadua eta musika-animazioa**
*Amurrioko Herria Familia Elkartearen eskutik*
Juan Urrutia Plaza

**13:30** **Apar-festa**
GUK eskultura

**14:00** **XII. Marmitako Txapelketako sari banaketa**
*Su-Gozotan gastronomia elkarteak antolatuta*
Juan Urrutia Plaza

**14:00** **Haurrentzako bazkaria**
*Scout Taldearen eskutik*
Udal pilotalekua

**14:00** **Adinekoen anaitasun bazkaria**
Udal pilotalekua

**16:00** **Dantzaldia** *Ganeko erromeroarekin eskutik*
Frontoi kalea

**16:00** **DJ Kaktus** *Vital Fundazioaren eskutik*
Parkea

**16:00** **Iguarrako bisitatzeko aukera**
Udaletxeko areto nagusia

**16:00** **Kalaka jolasak**
Parkea

**16:00** **Graffiti erakusketa herrikoia**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Parkea

**19:00** **Sun Magoaren eta Rosiren magia ikuskizuna**
Parkea

**19:00** **Belgorri, kontzertu ibiltaria**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Txosnagunetik

**20:00** **Buruhandiak**
Juan Urrutia Plaza

**20:00** **Ramiro Vergazen “White Bottom” ikuskizuna**
Juan Urrutia Plaza

**21:00** **Amurrio Harro**
*Informazio stand-a*
Larrinaga kalea

**21:30** **Txapelpunk, Perlata, Beranduegi Erromeria eta DJ true Tox**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Txosnagunea

**22:00** **Zezensuzkoa**
Elexondo kalea

**22:30** **Jamaica Show Orkestra**
Juan Urrutia Plaza













Batzoki
ALBINARRATE
Gosariak eta askotariko pintxoak
barran zein eramateko.
08:00etatik zabalik
Frontoi kalea, 4, Amurrio · 945 56 33 67


BVRVTXAGA
HARAGI-INDUSTRIAK
GANADUTEGIAK, ELABORAZIOAK ETA HARATEGIAK
70 urtez txistorrak, txorizoak eta odolosteak marka propioarekin egiten.
Espezialitatea: txuletoiak.
Burutxaga Harategiak
Burutxaga Hestebeteak
· Parrilladak eta ekitaldiak antolatzen ditugu herri eragileentzako, partikularrentzako eta enpresentzako.
· Aurrez prestatuak eta adobatuak
· Delicatessen produktuak
Aldaiturriaga industriagunea 16, Amurrio
T. 635 742 672 - 606 456 671
burutxagaic@gmail.com
AMURRIOKO HARATEGIAK:
Elexondo 15 – T. 945 890 186
Landako 18 – T. 945 890 111
LAUDION:
Virgen del Carmen 31


AD
ESTUDIO DE INTERIORISMO
ZURE PROIEKTUA GURE ESKU
697.834.409
info@ad-estudio.com
@ad_estudio_


EL TALLER DE ALEX
Pol. Aldaiturriaga 2 AMURRIO
T. 945 89 10 17 610 427 805
alex@eltallerdealex.com
www.eltallerdealex.com
Mekanika orokorra
I.A.T.ari begirako azterketa
Diagnosiak · Pneumatikoak


ASADOR
Villa Florida
Lucas Rey kalea, 6,
01470 Amurrio (Araba)
ERRESERBAK ETA ENKARGUAK
945 89 19 99
EGUNEKO MENUA ETA EDOZEIN PLATER ERAMATEKO PRESTATZEN DITUGU


Berganza
renovables
Iturgintza, gasa eta berogailua
Zoru erradiatzaileak eta eguzki-panelak
Aerotermia, Geotermia eta Biomasa
Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzen kudeaketa
Berganza auzoa, z/g. AMURRIO
instalacionesberganza@hotmail.com
665 73 85 57


hiT!
@Hitdenda


Goxe Berri
Fruituak eta Barazkiak
Jose Madinabeitia 1, AMURRIO T. 945 89 08 47
Sukalderako jaki onenak


ECOMOBEL
hogar
Bañuetaibar kalea, 14 · 945 892 345
ecomobelhector@gmail.com


DESBERDIN
· ESTILISTAS ·
Ordutegi jarraitua
Aholkularitza pertsonalizatua
Produktu organikoak
I.C.O.N.
Ezkongaietan espezializatuta
Makillajea
OPI manikura-pedikurak
Elexondo, 3 Amurrio
T. 945 06 50 39


jai zoriontsuak!
BAI BADA!
LIBURUDENDA
609555410
baibada.amurrio
WWW.BAIBADA.COM

# “Musika ez da matxista, letrak eta musikariak baizik”



**KAI NAKAI** (Gasteiz, 1996) artista gaztea aitzindaria da euskarazko reggaetoia egiten. Egun pop musika, urbanoa eta elektronikoa nahasten ditu bere kantuetan. Abuztuaren 15ean Amurrion izango da.

**Abuztuaren 15ean igoko zara Amurrioko oholtzara. Gogotsu zaude?**

Egia esan, gogo handiekin gaude. Uda potente bat nahi genuen eta kontzertuz betetako bira bat lortzen ari gara, ilusioa ematen digu horrela ibiltzeak. Ezagutzera emateko eta talde bezala hazteko ezinbestekoa da. Amurriora ekipo guztia joango gara, Kai eta lau dantzariak. Oso kontzertu dantzagarria da eta espero dugu jendea gogoekin etortzea dantza egiteko eta abesteko!

**Inolako loturarik duzu Amurriorekin?**

Familia daukat Amurrion, nire izeko, osaba eta lehengusua bertakoak dira, eta ilusio berezia egiten dit hara joateak, txikitan asteburu asko pasa izan ditut bertan.

**Zer beste kontzertu emango dituzu uda honetan?**

Uhh! Badaukagu zerrendatxo polita: Donapaleu, Leitza, Orereta, Amorebieta, Gasteiz, Gernika, Algorta, Bilbo, Elorrio... eta gehiago!

**Zer dago Kai Nakairen atzean?**

Ekipazo bat gara. Musikan, Noah ekoizlea eta Manuva eta Eli konpositoreak daude. Kontzertuetan Anepe koreografoa eta dantzaria, Leire, Andrea eta Maialen dantzariak, eta Alfredo teknikaria daude. Ikus-entzunezkoetan, Julen bideoetan, Tamara arte zuzendaritzan eta Adriana

argazkietan, eta gero laguntzaileak, aktoreak, dantzariak... Eta ni, Lady Gaga bezala, nire manager propioa naiz, hau guztia antolatzen, kontzertuak bilatzen, sareak eramaten... pasada bat da atzetik dagoen guztia, baina proiektu polita daukagula uste dut eta horretan sinesten dut.

**Nola igaro zinen Iratxe Agilera izatetik Kai Nakai izatera?**

Txikitatik asko gustatu izan zait musika eta beti izan dut kontaktua mundu honekin. 18 urterekin abestien bertsioak igotzen nituen Youtubera, eta denbora pasa eta gero erabaki nuen nire abesti propioak egin nahi nituela. 2019an musika egiten hasi nintzen eta 2020an Kai Nakai proiektua sortu ahal izan nuen Durangoko Azokako Sormen Bekari esker; proiektua hasteko bultzada ikaragarria izan zen. Kasualitatez, pandemia etorri zen gure lehen singlea ateratzearekin batera eta nahiko urte gogorra izan zen. Hala ere, aurrera egin genuen eta, gaur arte, disko bat (Baimenik Gabe, 2020), EP bat (Maitia, 2021) eta single eta bideoklip batzuk atera ditugu, eta aurten bira potente batekin gabiltza, oso pozik!

**Hasieratik zenuen buruan euskarazko reggaetoi feminista egingo zenuela, edo forma hartzen den proiektua da?**

Uste dut hasieran bazuela zentzua “reggaetoi feminista” etiketa jartzeak, jendeak aurreiritzi asko zituelako musika honekin, baina gaur esango nuke Euskal Herriko talde gehienek musika feminista egiten dutela eta ez dutela etiketa horren beharrik. Musika ez da matxista, letrak eta musikariak baizik. Gaur egun gustuko dut esatea pop musika, urbanoa eta elektronikoa egiten dudala, denetarikoa, aldakorrak garelako eta gauza berriak probatzea gustuko dugulako.

**Izan duzu errezelorik, kritikarik egin dizun jendea...**

Beti dago kritikatzen nauen jendea, baina ohitzen ari naiz jada... inbidia oso txarra da eta ez da nik konpondu dezakedan ezer.



**Aski ezaguna da 2021ean Chill Mafiarekin izan zenuen beefa. Nola geratu da harremana?**

Ondo, denborarekin konturatu naiz badauzkagula amankomunean uste nituen baino gauza gehiago, egia esan.

**Eta panorama, nola dago Euskal Herrian?**

Uste dut aberatsa dela eta gero eta talde gehiago sortzen ari direla genero ezberdinekin, baina uste dut joera oso indibidualista dela. Adiskidetasuna falta da, artiston artean lotura gehiago izatea.

**Disko berri batean ari zara lanean. Nola doa? Zerbait aurreratu dezakezu?**

Zortzi abestiko disko batean ari naiz lanean, eta aurreratu dezaket denak kolaborazioak izango direla. Genero aldetik abestiak elektronikoagoak izango dira, eta urte amaieran aterako da, irrikaz gaude! Orain aterako dugu lehenengo singlea bideokliparekin batera, ‘Dónde’.

**Azkenaldian hainbat kantu kaleratu dituzu eta bideoklipetan dantzari gazteak ageri dira.**

Azken hilabeteetan ‘Aldapeko sagarra’ abestia atera nuen, eta oso harrera ona izan zuen, egia esan, herriko festetarako tamazo bat da. Bestea ‘Gugan Dago’ izan da, Gure Eskuren 2023ko abestia, eta dantzari gazteak agertzen dira abestiak etorkizunaz eta aldaketaz hitz egiten duelako, eta uste dudalako gazteek gai honetan paper nagusia daukatela. Bideoklipa oso polita geratu zen, egia esan.

Orain “Dónde” abestia ateratzear gaude, albumeko lehenengo singlea, Iris Pencherekin batera. Reggaetoi kantu bat da, baina bideoklipa... bueno, bideoklipa, ‘urteko pelikula’ izango da, izki larriz! Pasada bat grabatu duguna, honen ostean Netflixen hartu behar gaituzte egin dugun paperagatik (barreak).

**Amaitzeko, bota gonbidapena Amurrioko eta gertuko jendeari kontzertura bertaratzeko.**

Animo jende!! Etorri zaitezte eta emaiozue aukera, ondo pasatuko dugu, dantzatuko dugu eta barre batzuk botako ditugu konpainia onean! Bertan espero zaituztegu!

# Egitarauak

## Abuztuak

### 14 Astelehena

10:00 **Etxeko produktuen erakusketa eta lehiaketa**
Juan Urrutia Plaza

11:00 **Kalejira** *Amurrioko Txistuzaleak taldearen eskutik*
Herriko kaleetan zehar

11:00 **Haurrentzako Parkea**
Parkea

12:30 **Musika animazioa**
*Trikitilarien eskutik*
Herriko kaleetan zehar

13:00 **Jai-kuadrillen trikipoteoa**
Kioskoa

13:00 **Zizak dastatzea**
*Arriola Mikologia Elkartearen eskutik*
Larrinaga kalea

13:30 **Apar-festa**
Guk eskultura

15:00 **Jai-kuadrillen bazkaria**
Udal pilotalekua

18:00 **Kuadrillen arteko jolasak**
*Jai-kuadrillek antolatuta*
Parkea

19:00 **“Mecha” antzezlana**
*Jimena Caballeti Konpainia*
San Anton Plaza

19:00 **Eskaintza Jasokundeko Andra Mariari**
Andra Mariaren Parrokia

20:00 **Odoloste jana**
San Anton Plaza
**Sonia Vera Swing Band**
*Vital Fundazioaren eskutik*
Parkea
San Anton Plaza

20:00 **Hamarru Elektrotxaranga**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Txosnagunetik

21:00 **Indarkeria sexistarik gabeko gunea**
*Emagin eta EHko Bilgune Feministaren eskutik*
Larrinaga kalea

22:00 **Gwaya, Gozategi eta DJ Blessive**
Juan Urrutia Plaza

20:30 **DJ Aaron XTYX**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Gazte Karpa











A+A

Ile-mikroskopia
Curly metodoa
*lehorrean egindako mozketa*



Etxegoien kalea 2, AMURRIO · 945 89 24 02
**www.amasapeluqueria.es**



*10 urte bete ditugu, mila esker!*

KOLOREARTE
TALLER-GALERÍA
amaiagmadrigal

- **Haur, gazte eta helduentzako espazio artistikoa.**
- **Talde txikiak.**
- **KoloreArte erakusketa-aretoa ere bada.**
- **Artista hasiberria zara? Idatziguzu zure obra erakusteko.**

**Intxaurdio kalea 2B – behea, Amurrio · kolorearteetl@gmail.com · 671887759 · 945105024**

**Construcciones**
Cosme

**IGELTSEROTZA OROKORRA**
Sukaldeetako eta bainugeletako alikatatuak
Eraberritzeak · Gremioen kudeaketa

**ARESPALDITZA**
constructionescosme@gmail.com 630 435 673

Kili BERRIA

- **Koktelak** (mojitoak, pisco sour, anana iragazia, etab.)
- Ostegunetan eta ostiraletan **pintxopotea**
- Igandeetan **txibia txibierroak** 12:00etatik 15:00ak arte
- Enkarguzko **pizzak, tortillak eta pintxoak**





**Tel. 945 065 715 · Mendiko 2, Amurrio**

arrate
**gestoria aholkularitza aseguruak**

Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

20 urte
**baino gehiagoko esperientzia**

***Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!***

FISKIMAT
IKASTEGIA

DBH - BATXILER
INGENIERITZAKO GRADUAK
HEZIKETA ZIKLOAK
ETXEKO LANENTZAKO GELA

Frontoi kalea 9 behea, AMURRIO
662 580 994 · 945 891 972
fiskimat@yahoo.es

Entre 3

Iturralde 2, bajo, Amurrio
**945 893 727** · entre3@outlook.es

facebook.com/entre3amurrio
instagram.com/entre3peluqueria

A—MURRIO
LOGOPEDIA

**OSAKIDETZAk eta ELEK akreditatutako osasun zentroa**
Erregistro zk.: 208/15

- Tratamendu zehatzak: hizkuntza, ahotsa eta entzumena.
- Irakurketan eta idazketan zailtasunak: dislexia.
- Terapia miofuntzionala: haurren irensketa atipikoa.
- Ikaskuntza metodoak: ikasteko laguntza.

Larrinaga kalea 1, A solairuartea · 665 714 511

Erreportajea

# 'La Ruta Integral': Amurrioko taberna guztiak egun bakarrean bisitatzeko erronka

Jai-egitarau ofizialetik kanpo egonda ere, aski ezaguna da urtero-urtero abuztuaren 12an Amurrioko kaleak zeharkatzen dituen erronka. 'La Ruta-k' herriko taberna guztiak bisitatzen ditu egun bakarrean, musika eta giro-ona periferia zein erdigunetik hedatuz.




Ez da jai programazio ofizialean argitaratuta aterako, baina bada urtero-urtero abuztuaren 12an hutsik egiten ez duen ekimen herrikoi bat. Herritar askok 'La Integral' bezala ezagutzen dute. Egitasmoaren sortzaileek 'La Ruta integral' izenarekin bataiatu zuten txupinazo egunean Amurrioko taberna guztietan trago bat hartzearen erronka.

1998an ospatu zuten balentria honen lehenengo edizioa, Xabi, Axier eta Rubenen kuadrillak sustatuta. "Garai hartan modan zegoen, batez ere mendizaleen artean, ez dakit nongo gandorreko integrala egitea tontor guztietatik igarota. Hortik abiatuta, elkarri esaten genion 'hori bai izango zela integral handia: Amurrioko taberna guztietatik pasatzea bakoitzean pote bat hartuta!'", azaldu dute.

**Lehenengo urteak**

'La Rutaren' lehen hazia ereinda, erronkari heltzeko prestaketekin hasi ziren. "Antolatzen hasi ginen. Egin genuen tabernen errolda bat, ibilbide bat... Lehenengo urte horietan asko pentsatzen genuen (barreak), bizikletaz egiten genuen ibilbidea ikusteko zein tabernak zeuden zabalik eta zein ez". Uda sasoiak bazuen, ordea, oztopo bat: taberna askok itxi egiten zuten oporrez

**“Hasieran zurrakapotea egin eta pertz handi batean eramaten genuen, itxita zeuden tabernetan ere tragoa hartzeko”**

gozatzeko. “Uste genuen ibilbideak bere zentzua galtzen zuela taberna guztietan gelditzerik ez bagenuen”, aldarrikatu dute egitasmoaren sortzaileek. Konponbide erraza topatu zioten arazoari: zurrakapotea prestatu eta pertz handi batean eramaten zuten bi makilen laguntzaz. “Horregatik esaten dugu integrala egiten genuela, taberna guztietan geratzen ginelako, itxita edo zabalik egon”.

Serio hartu zuten erronka: “Dortsalak egin genituen, mapa bat ere prestatzen genuen, baita tabernen sinaduren kontrol orri bat, ziurtatzeko taberna guztietatik pasatzen ginela…”

Lehenengo urtea “desastre” hutsa izan zela gogoratu dute barre artean hiru lagunek. “Kuadrillako hogei abiatu ginen goizean eta hiruk bukatu genuen Frontoi tabernan”. Bigarren urtean ibilbidearen erdia egin zuten bakarrik, eklipsea zegoen egun hartan eta “La Ruta eclipsada” deitu zioten edizio horri. Animoak ez zitzaizkien akitu, eta gogotsu ekin zioten urtez urte ekimena errepikatzeari, ospatzear den XXIV. ediziora iritsi arte.

**Ibilbidea**

Abuztuaren 12ko ibilbidea honakoa da: goizean periferiako tabernak bisitatzen dituzte dituzte, bazkaltzeko geratu eta arratsaldean Amurrio erdiguneko lokaletan murgiltzen dira. Guztira, 40-45 taberna eta 10-12 kilometroko ibilbidea. Urteren batean goiza bizikletaz egitera ausartu ziren, eta “Tren txu-txu” bat kontratatzeko aurrekontuak ere eskatu dituzte, “baina garestiegia da hori”.

**Musika, mozorroak eta giro ona**

Musika da ‘La Rutaren’ beste osagai nagusietako bat. Musika tresnez armaturik, jo eta jo bisitatzen dituzte Amurrioko taberna guztiak; “Tabernek oso ondo hartu dute ekimena hasieratik, baina orain are gehiago parte hartzen dute. Beti ateratzen digute jateko zerbait, eta hori asko eskertzen da. Egundoko giroa sortzen da tabernetan musika eta dantza artean”.

Kolore puntua, aldiz, parte-hartzaileen mozorroek jartzen dute: “badira urte batzuk mozorrotzeari ekin geniola. Gai bat jartzen genuen eta mozorratu egiten ginen. Batzuk urtero janzten dugu mozorro berdina, baina beti asmatzen dugu modua proposatutako tematikan sartzeko. Olinpiar Jokoetaz mozorrotu gara, baita super heroiz ere”.

Ahoz aho zabaldutako ekimenak berrogei lagun elkartzen ditu gaur egun. “Gure kuadrillan hasi zen, baina hasieratik zabaldu genuen nahikotxo. Hogei bat lagun hasi ginen. Badira batu diren kuadrillak, etortzeari utzi diotenak… Gaur egun berrogei lagun batzen gara. Gu gara nagusienak, alde handiarekin”.

Urteak joan urteak etorri, oraindik ere gogotsu daude egitasmoaren sortzaileak, eta bere XXIV. edizioan ere ez diote Amurrioko jai-egitarau alternatiboko ekintzarik sonatuenari hutsik egingo.

**“Dortsalak, mapa eta tabernen kontrola eramateko sinadura orria prestatzen genuen”**



# Abuztuak

## 15 Asteartea

10:00 **Kanpai iraulketa eta suziri jaurtitzea**
Andra Mariaren Parrokia

10:00 **LXVIII. Aiala Zirkuitua Txirrindularitza Saria**
*Daniel Albizua memoriala*
Elexondo kalea

10:30 **Dianak** *trikitilarien eskutik*
Herriko kaleetan zehar

10:45 **Mariaka eta Marigabon erraldoien kalejira parrokiara** *gaitero eta trikitilarien eskutik*
Juan Urrutia Plaza

11:00 **Meza eta ohorezko aurreskua**
Andra Mariaren Parrokia

12:30 **Kalejira erraldoi eta buruhandiekin**
Juan Urrutia Plaza

12:30 **Agintariei eta jaietako laguntzaileei harrera**
Udaletxea

12:30 **Errepresaliatuen aldeko elkarretaratzea**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Juan Urrutia Plaza

12:30 **Herri kirolak**
*I. mailako Aizkolarien Arabako Txapelketa*
San Anton Plaza

17:30 **Afrikako instrumentuen perkusio-tailerra**
*Bizitzak salbatzeko musika*
Parkea

18:00 **Slack-Line erakusketa herrikoia**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Parkea

18:30 **Uganda Sticks, dantza eta perkusio ikuskizuna**
*Bizitzak salbatzeko musika*
Parkea

19:00 **Euskal Dantzen alardea**
*Aiara Dantza Taldearen eskutik*
Juan Urrutia Plaza

21:00 **Kai Nakai**
Juan Urrutia Plaza

23:00 **Babiora igoera oxigenorik gabe**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Gazte Karpa

23:00 **Oxabi erromeria**
Juan Urrutia Plaza











KOPAS
IDEIAK GAUZATZEN DITUGU
Gora Amurrioko jaiak
Aialako Industrialdea, 8
01479 Murga - Aiara
fabrica@kopas.es
Tfno. 945.39.94.05
www.kopas.es
Alda. Urkijo, 88 -2º
48013 Bilbao
kopas@kopas.es
Tfno. 94.442.22.24

Abiaga JATETXEA
Eguneko menua, ezkontzak, jaunartzeak, ospakizunak, taldeentzako menu bereziak...

Abiaga kaldea 7, AMURRIO 945 39 36 18 · 652 703 551
info@abiagajatetxea.com · www.abiagajatetxea.com

expert izaskun
SUKALDEAK · KOMUNAK
ARMAIRUAK · BERRITZE LANAK
**AMURRIO.** Elexondo kalea, 19 · Tel. 945 89 23 39 · E-mail: eizaskun.amurrio@gmail.com
**LAUDIO.** Nerbioi kalea, 36 · Tel. 946 72 56 39 · E-mail: eizaskun.llodio@gmail.com
**www.eizaskun.com**

Instituto Médico Veterinario de Álava
Maskuribai poligonoa Z9 - Z11
01470 Amurrio (Araba)
Tel.: 945 028 910 · 945 393 477
Larrialdiak: 656 788 800
www.imva.es

adi grafik
jaietarako prest
kartelak, kamisetak, zapiak... *eta askoz gehiago!*


MERTXAN KATALOGOA
CATÁLOGO MERCHAN
945 89 08 46 | adi@adigrafik.com | @adigrafik | www.adigrafik.com | Maskuribai Ind. Z-10 | 01470 AMURRIO (Araba)

EUSKAL JANTZIAK - BORDATU MOTA GUZTIAK - ESKUZ EGINDAKO PIEZAK - OSAGARRI TRADIZIONALAK
IRRINTZI
euskal jantzi denda
Batzalarrin Kalea, 9 Laudio
944 072 215
Irrintzi, euskal jantzi denda

# Egitarauak

## Abuztuak

### 16 Asteazkena

10:00 **Zaindariaren igoera San Roke baselizara**
*Santa Vera Cruz kofradia*
Andra Mariaren Parrokia

10:30 **Abereen erakusketa**
San Rokeko zelaiak

11:00 **Animazioa** *Trikitilarien eskutik*
San Rokeko zelaiak

11:30 **Meza nagusia**
*Mariaka abesbatzaren partehartzearekin*
San Rokeko zelaiak

12:30 **LVII. aurresku eta jota txapelketa**
*Aiara Dantza Taldeak antolatuta*
San Rokeko zelaiak

18:00 **VII. Jose Negrete Futbol Trofeoa**
*Amurrio Clubek antolatuta*
Basarte futbol zelaia

20:00 **"Soñando Magia" ikuskizuna**
Parkea

21:00 **Rumbo Tijuana**
Juan Urrutia Plaza

22:15 **Karrozen desfilea**
*Jai Kuadrillen eskutik*
Elizako biribilgunea

23:30 **Akerbeltz erromeria**
Juan Urrutia Plaza

01:30 **Karrozen lehiaketako sari banaketa**
Juan Urrutia Plaza

01:30 **DJ Markelin**
Juan Urrutia Plaza

### 17 Osteguna

9:00 **II. Sukalki lehiaketa eta XXII. Patata-tortilla lehiaketa**
*Mendiko Lagunak Taldeak antolatuta*
San Rokeko zelaiak

19:00 **Kanpaina meza** *Mariaka abesbatzarekin*
San Rokeko zelaiak

12:30 **Motzaldi tradizionalaren erakustaldia**
San Rokeko zelaiak

14:00 **II. Sukalki lehiaketa eta XXII. Patata-tortilla lehiaketako sari banaketa**
*Mendiko Lagunak Taldeak antolatuta*
San Rokeko zelaiak

14:30 **Anaitasun bazkaria**
San Rokeko zelaiak

16:00 **Junda Jo erromeria**
San Rokeko zelaiak

19:00 **DJ Windows Media Player**
*Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta*
Gazte Karpa

22:00 **Dantza plaza Patxi Perezekin**
Juan Urrutia Plaza

23:00 **Zezensuzkoa**
Elexondo kalea

23:30 **Diskoibiltaria**
Juan Urrutia Plazatik

00:00 **Iguarrakoari agurra eta jaien amaiera**
Juan Urrutia Plaza









KO MU NI- KA
FAK TO- RIA
ZURE KOMUNIKAZIO AGENTZIA INTEGRALA



www.komunika.eus
FAKTORIAN/ Laudioko industrialdea 4-8
komunika@aiaraldea.eus
946 56 85 54
@komunika.eus

BAIMENDUN INSTALATZAILEA
Iturgintza - Berogailua - Gasa - Aire girotua
CASTRO
David Castro
Zoru erradiatzaileen eta Aerotermiaren instalatzailea · IG-B gas instalatzailea · Instalazio termikoen kokatzea eta mantenua · Iturgintza instalatzailea
676 02 33 93 · 685 26 69 31 · 669 15 41 52
Elexondo 24, Amurrio (Araba) www.fontaneriacastro.com kaxyus@hotmail.com

SUSTRAIAK
- FISIOTERAPIA -
DIZIPLINARTEKO ZENTROA
Fisioterapia eta
errehabilitazio aktiboa
Podologia · Nutrizioa
Ondo pasa jaietan!
Jauregi urbanizazioa 1, behea, ARTZINIEGA
658 60 88 41

LARRABE EGURRAK
Pago eta haritz egur salmenta
Mendiak sastrakaz garbitzea · Baso-pistak garbitzea
Itxituretarako hesolak kokatzea
679 96 14 21 AMURRIO

El Rinconcito
Larrinaga 1,
AMURRIO

Electricidad Albizua
Electricidad Albizua, S.L.
Tel. 608 87 05 13
945 89 07 02
Aldaiturriaga poligonoa, E2 (AMURRIO)
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

PINTURA Y DECORACIONES
GARTZIA
Margoketa eta apainketa orokorra
**Mikrozementu aplikazioa**
Pladur
Parket flotatzaile jartzea
Margoturiko papera jartzea
Fatxaden estaldurak
LAUDIO - Araba T. 689 219 826
dekogartzia@hotmail.com

BABIO
HORTZ KLINIKA · CLÍNICA DENTAL
ZURE BETIKO DENTISTA BABIO HORTZ KLINIKAN
Maialen Martínez Fombellida · Ander Martínez Fombellida
Odontologia orokorra · Inplanteak · Ortodontzia
Estetika · 3D erradiologia
Dionisio Aldama kalea, 2 (Amurrio) · 945 068 996

Mugimendu Feminista

# Edozein unetan erasoak salatzeko tresna

Amurrioko Emakumeon* Sareak eta Udalak zenbait baliabide jarriko dituzte eskura jaietan zehar edozein momentutan erasoak salatu ahal izateko. Horrez gain, mugimendu feministak hainbat ekimen egingo ditu indarkeriaren aurkako aldarria herriko kaleetara ateratzeko.




Urtero bezala, Amurrioko mugimendu feministak prest du herriko jaietan eraso sexistei aurre egiteko protokoloa. Aurten Amurrioko Emakumeon* Sarearen bidez kudeatuko dute, 2022ko martxoan aurkeztutako egitasmoa. Bertako kideek Aiaraldea komunikabideari azaldu diotenez, urtez urte Amurrioko Udalari eskatu diote jaietarako erasoen aurkako protokolo bat egin dezan, “haiek baliabide gehiago dituztelako telefono zenbaki bat eta profesionalak jartzeko”, baina inoiz ez dute lortu. Alternatiba beti izan da Mugimendu Feministak egindako protokoloa jartzea martxan eta duela zazpi urtetik hona eurek ipini dute 24 orduz erasoak salatzeko telefonoa.

“Iaz esan genien guk ematen genuen zerbitzu hori hobe zela elkarte batek egitea, adituak eta psikologoak dituena, eta Udalak bermatu behar zuela. Iaz esan ziguten jada ez ziela denborarik ematen eta aurten horrela egitekotan geratu ginen.

Baina, berriro gertatu da berdina: proposatu ziguten iazko gauza bera egitea, eta guk ezetz esan genien.

Azkenean, gure jaietako jarduna ez da horretara mugatzen eta kideon artean lan hori egiteko zailtasun handiak ditugu. Exijentzia hori jarri genuen mahai gainean eta azkenean telefono bidezko arreta Emagin elkarteak egingo du Udalak kontratatuta”, azaldu dute.

Horrez gain, 2014tik berritu ez duen protokoloa lantzeko, Udalak Sortzen aholkularitza enpresa azpikontratatu du. Sortzenek egingo duen protokoloa ez da soilik jaietarako, baina aurten gutxienez jaiei begirako zirriborroa aurkeztu dute eta Mugimendu Feministak duen protokoloaren arteko nahasketa bat egin, “behintzat jai hauetan lan egiteko irizpide batzuk ezartzeko”.

Horrela, jai egunetako arreta telefonikoa eta Mugimendu Feministak martxan jarriko lituzkeen prebentzio zein salaketa neurriak uztartuko dituzte. Nolanahi ere, Emakumeon* Sareko kideen esanetan, “partxe bat besterik ez da”.

**Erasoen aurrean**

Eraso bat salatzen denean Mugimendu Feminista izaten da subjektu salatzailea, biktimen identitatea eta testigantza babesteko. Halakorik jasotzekotan, hurrengo egunean 19:00etan kontzentrazioa edo manifestazioa antolatu ohi dute. Iaz eraso bat baino gehiago jazo ziren eta abuztuaren 17an elkarretaratzea egin zuten Mugimendu Feministako kideek deituta.

Euren protokoloa txosnagunean ere aplikatzen da, eta hor berehalako neurriak zehaztuta daude, kasuaren arabera: izan txosnak ixtea, erasotzailea kanporatzea, hurrengo egunean txosnagunea ez irekitzea...

Horrez gain, jaiak hasi aurretik kuadrillekin eta txosnaguneko beste eragileekin elkartzen dira protokoloa eta eskaintzen diren tresnak azaltzeko eta, horrekin batera, indarkeria matxistaren aurkako jarrera sozializatzeko ekimenen bat ere egin ohi dute, esaterako, jaiak hasi aurreko manifestazioa.

***Iaz eraso bat baino gehiago jazo ziren eta elkarretaratzea egin zuen Mugimendu Feministak***

**‘Entzun gaitzatela’**

Otsemeak Amurrioko Neska* Gazte Talde Feministak erasoak salatzeko zabaldutako tresna da ‘Entzun gaitzatela!’ eta hori ere etenik gabe egongo da zabalik. “Galdetegi anonimoa da eta horrek segurtasuna ematen du testigantza emateko gurekin geratu behar izan gabe”. 2021eko urrian jarri zuen martxa bozgorailua Otsemeakek, eta taldearen sare sozialetan dago galdetegiaren esteka eskuragarri. Urte osoan zehar dago aktibo, eta guztiz anonimoa da.



# Baranbio Irailak

## 07 Osteguna

17:00 **Briska Txapelketa**

19:00 **Pregoia, Txupinazoa eta kanpai-hotsa**

20:30 **Odoloste Jana**

17:00 **Cuchin Ibañez**

## 08 Ostirala

12:00 **Meza**
Garrastatxu

13:00 **Pintxopotea**

13:00 **Trikitixa**

14:00 **Jubilatuen Bazkaria**
Garrastatxu

19:00 **Tortilla-lehiaketa**
Garrastatxu

22:00 **Erromeria**
Garrastatxu

## 09 Larunbata

09:30 **Andra Mari Txiki Saria**
*23 urte azpiko*
*Txirrindularitza lasterketa*
Baranbio

11:30 **Paella lehiaketa**
Garrastatxu

12:00 **Meza**
Garrastatxu

13:30 **Andra Mari Txiki Saria, sari banaketa**
*23 urte azpiko*
*Txirrindularitza lasterketa*
Baranbio

14:15 **Paellen aurkezpena**
Garrastatxu

16:30 **Mus Txapelketa**
Baranbioko txokoa

16:30 **Antxon magoa**
Garrastatxu

17:00 **Bingo musikatua**
Garrastatxu

22:00 **Parrillada**
*Burutxaga harategiaren eskutik*
Garrastatxu

23:00 **Beranduegi erromeria**
Garrastatxu

## 10 Igandea

12:00 **Meza**
Baranbio

12:30 **Dantza erakustaldia**
Baranbio

13:00 **Pintxopotea**
*Txistulariek girotua*
Baranbio

18:00 **Txokolate-jana**
Baranbio










# *Andra Mari Txiki jaiek Baranbio eta Garrastatxu alaituko dituzte lau egunez*



Irailaren 7an, ostegunean, emango diete hasiera Baranbioko Andra Mari Txiki jaiei. Briska txapelketa egingo dute lehendabizi eta 19:00etan leherraraziko dute jaia pregoiaren irakurketarekin kanpaikadek lagunduta. Jarraian odolostea banatuko dute eta Cuchin Ibañezek mariatxien doinua eramango du **Amurrioko herrira.**

Ostiral eguerdian meza egingo dute Garrastatxu baselizan eta bazkalaurretik trikitilariek pintxo-potea arinduko dute. 14:00etan jubilatuek bazkaria egingo dute eta 19:00etatik aurrera tortilla lehiaketa abiatuko da. Iluntzean erromeriak hartuko du Garrastatxuko inguruak alaitzeko ardura. Larunbatean, irailaren 9an, txirrindulariek goizean goiz esnatuko dute herria, 9:30ean abiatuko baita Andra Mari Txiki txirrindularitza lasterketa. Bi ordu geroago irekiko dute paella lehiaketan izena emateko auekra. Eguerdian meza egingo dute eta 13:30ean banatuko dituzte txirrindularitza lasterketaren sariak Baranbion. Bazkalostean mus txapelketa eta Antxon magoaren ikuskizuna egongo dira ordu berean eta jarraian bingo musikatuak hartuko die lekukoa. Iluntzean parrillada egingo dute eta 23:00etatik aurrera Beranduegi erromeria arduratuko da Garrastatxu dantzarazteaz.

Irailaren 10ean emango diete amaiera Andra Mari Txiki jaiei, igandean. Mezaren ostean dantza, txistulariak eta pintxo-potea egongo dira herrian zehar eta arratsaldeko 18:30ean agurtuko dituzte jaiak hurrengo urtera arte, auzokide guztientzako txokolate-janarekin.




#UdariKlik
UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA 2023
AIARALDEA
KOMUNIKABIDE FAKTORIA
www.aiaraldea.eus
Informazio guztia hemen:


JAI HAUETAN, TRENEZ HOBETO
amurrio
ferrocarril y equipos, s.a.


Ura Bere Bidean Korala
Euskal abesti itzelen aurkezpena abesbatz bertsioan
500 ahots baino gehiago eszenan!
Aurretik jaialdi akustikoan
IDOIA · ETS · MAREN · GATIBU
Irailak 23 · Larunbata · 19:00 · Buesa Arena
www.uraberebidean.eus
araba álava
LABORAL kutxa
Fair Saturday Foundation




HOTEL ORDUÑA PLAZA
****
Balneario

ZURE EZKONTZA GUREKIN

XVIII.mendeko eraikuntza klasikoa
Aretoaren edukiera: 250 pertsona
Gonbidatuentzako ostatua
Ezkontza zibiletarako barruko patioa eta koktela
Ezkontzetako gure dossierra: www.hotelbalneariorduña.com



Foru plaza, URDUÑA · Tel. 945 56 90 38 · info@hotelordunaplaza.com
www.hotelbalneariorduña.com @hotelordunaplaza


EN FIESTAS
araba álava
Laia
HERRIKO
PLAZA
1&1



Babestutako edukia

# Laudioko jaiak

## Abuztuak 15tik-27ra



Ainize Gastaka

*LAUDIOKO ALKATEA*

*Heldu dira Laudioko jaiak eta kaleak musikaz, dantzaz eta irribarrez beteko dira, berriz ere. Hurrengo egunetan, jai-giroa izango da nagusi gure herrian, gureak diren jaiak ospatzeko. Eskerrik asko, urtez urte, jai hauek posible egiten dituzuenei; Laudioko kuadrilla guztiei, kultur, kirol zein herriko elkarte edo eragileei eta, nola ez, lanean arituko diren pertsona guzti-guztiei. Zuek zarete herriko jaiak aurrera ateratzen dituzuenak. Gainera, nire besarkadarik beroena bidali nahi diet aurten gurean egon ezin direnei.*

*Aurtengo jaiak euskaldunak, herrikoiak, solidarioak eta errespetuzkoak izan daitezen denon esku dago. Laudioarrok ez dugu jarrera arrazista, homofobo edo transfoborik onartuko ezta emakumeon aurkako edozein motatako erasorik ere. Bizi ditzagun kaleak askatasunez!*

Gora Laudio!
Gora Laudioko Jaiak!

LAUDIO UDALA

Elkarrizketa

# “Sustraiak ez galtzea da gure helburu nagusia”

**JESUS MARTINEZ** (Laudio, 1979), **VICENTE GORDO** (Caceres, 1958), **JOSE LUIS CAMPO** (Laudio, 1974) **MANUEL LORENZO** (Ourense, 1961), Andaluzia Etxeko, Extremadura Etxeko, Gaztela eta Leongo Etxeko eta Zentro Galegoko kideak dira, hurrenez hurren. Beraiena da aurtengo jaietako pregoia irakurtzearen ardura.




**Nola jaso zenuten pregoilari izateko gonbitea?**

Vicente: Ez genuen espero, inondik inora. Herrien Jaialdi Kulturala prestatzen ari ginela jarri ziren udaleko ordezkariak gurekin harremanetan.

Jose: Jaialdia prestatzeko genuen bilerara hurbildu ziren udaleko kideak, eta bertan eman ziguten albistea: herriko kuadrillek eta gainerako jai-eragileek gu hautatu gintuzten pregoilari izateko. Guk ez genuen asko pentsatu, bileran bertan eman genien baiezkoa.

Jesus: Oso aitortza polita dela uste dugu.

**Erabaki duzue zer den pregoian aldarrikatuko duzuena?**

Jose: Lau etxeek herrian egindako ekarpenaren birpasa egingo dugu.

Manolo: Errepasoa egingo dugu, lehenengo etxea sortu zenetik gaur egun arte. Galiziako etxea izan zen lehenengoa, 1969an. Ordutik hona asko eta asko izan dira Laudiora bizitzera etorri diren andaluziarrak, galegoak, gaztelarrak eta extremadurarrak. 1970eko

hamarkadan etorritakoen hirugarren edota laugarren belaunaldian gaude.

Vicente: Laudioko jaietako partaideak ere bagarela aldarrikatuko dugu. Gure jai propioak antolatzen ditugun era berean, herriko jaietan gure alea jarri nahi dugu, Laudioko etxeok antolatzen ditugun jaiak herri guztiarentzako dira eta.

**Nolakoak izan ziren hastapen urte horiek?**

Jesus: Laudiora etorritako andaluziarrak herriko hainbat tabernatan elkartzen ziren, guztiak batera egon eta babeslekua sortzeko asmoz. Kasualitatez, 1970eko San Roke Jaietan Andaluziako festetan jartzen diren txosna bat muntatu zuten. Hainbestekoa izan zen txosna horren arrakasta, hori izan zela Andaluzia Etxearen sorrera. Urte artako urrian sinatu ziren estatutuak.

1971n lehenengo lokala zabaldu zen, gaur egun Basalarrina dagoen lekuan, Abasto Plazan. 1983ko uholdeen ostean Latiorroko gaur egungo lokala erostea erabaki zuten. 1984an inauguratu zen gaur egungo lokala.

Vicente: Extremadurako Etxea 1977an sortu zen. Bakoitzak zekien apurra jarri zuen lokala atontzeko. Urte politak izan ziren.

Jose: Gaztela Leongo Etxea izan zen inauguratzen azkena. Asko aldatu dira etxeak. Lehenengo urteetan askoz itxiagoak ziren, baina egundoko lana egin da eta orain herriko jardueraren elementu garrantzitsuak dira.

**“Andaluziatik, Galiziatik, Extremaduratik eta Gaztelatik etorritakoek ekarpen izugarria egin zioten herriari”**



# Elkarrizketa



Jesus: Lehen aterpe bat ziren kanpotik etorri eta herri berri batean, kultura berri batean murgiltzen ziren horientzat. Orain herriko bizitzan guztiz integratuta daude. Belaunaldi berriek euskaraz ikasi dute.

**Zer ekarpen egiten diete diasporaren etxeek 1970eko hamarkadan etorritakoen ondorengo diren belaunaldi gazteei?**

Jose: Erroak bizirik mantentzeko modua da. Gure kasuan, agian hirugarren edota laugarren belaunaldi horiek ezer gutxi dakite Gaztelako kulturaren inguruan, Laudion hazi direlako. Hori bizirik mantendu behar dugu.

Vicente: Kultura nahasketa bat da gurea. Gure seme-alabak, gu geu, euskaldunak gara. Baina sustraiak bizirik mantentzea ezinbestekoa dugu. Niretzako ezinbestekoa da Extremadurarekin ditudan lokarriak estu mantentzea.

**Jarduera ugari egiten dituzue transmisio kulturala bermatzeko.**

Manolo: Guk Zentro Galegoan doako gaita klaseak eskaintzen ditugu adibidez, eta jende asko hurbiltzen da. Galegoz idatzitako lanen liburutegi oso handia dugu ere. Behin Xuntak galego irakasle bat bidali zuen Laudiora, eta zur eta lur geratu zen gure bilduma ikustean. Ospakizun ugari ere antolatzen ditugu; maiatzean ospatzen dugun Galiziar Letren Jaia da Zentro Galegoaren urteko lehenengo jarduera garrantzitsua, eta arrakasta handia izan ohi du. Gero, uztailaren 25ean, Santiago Eguna ospatzen dugu. Azkenik, azaroan gaztainen jaia ospatzen dugu; Magosto.

Jose: Gaztela Leongo Etxean ere liburutegi oso handi bat daukagu.

Jesus: Guk gitarra eta dantza klaseak eskaintzen ditugu Andaluzia Etxean. Saiatu gara belaunaldi berrientzako ikastaro horiei ere buelta bat ematen, erakargarriagoak izan daitezen. Horri esker bada Andaluziako sustrairik ez duen baina etortzera animatu eta sevillana klaseetara apuntatu den gazterik ere.

*“Ahalik eta ekintza gehienetan egoten saiatuko gara, ikus dadin gu ere bagarela herriaren eta festen parte!”*




**Zer eskaini diote lau etxe hauek Laudioko herriari?**

Vicente: Gauza asko, nik uste: kultura, integrazioa...

Jose: Esku-lana, nagusiki, kanpotik Acerosera lanera etorritako milaka pertsonek eraiki dute Laudio.

Vicente: Laudiok 1970eko hamarkadan 7.000 biztanle zituen. Andaluziatik, Galiziatik, Extremaduratik eta Gaztelatik etorritakoek ekarpen izugarria egin zioten herriari. Auzo hau bera, Latiorro, kanpotik etorritakoek altxatu zuten.

Jesus: Lanera etorri ziren horiek izan ziren, gainera, herritar gehiago etortzeko zubi lanak egin zituztenak. Ekarpen izugarria izan dute emigratutako bizilagunek herriaren eta bailararen garapen ekonomikoan.

Manolo: Herrigintzari ere asko eman diogu. Laudio Ikastola sortu zenean, esaterako, lehenengo eskolak Zentro Galegoan eskaintzen ziren. Guk bageneukan espazio nahikoa bertan ikasleei eskaintzeko.

**Eta etorkizunera begira jarrita, zer bide jarraitu behar dute Laudioko lau etxeek?**

Jose: Belaunaldi gazteengana hurbildu behar gara gehiago, lehen aipatzen genituen hirugarren eta laugarren belaunaldi horietara. Beharrizanak eta interesak asko aldatu dira.

Jesus: Ekintzak dibertsifikatu behar ditugu. Ezin gara geratu sevillana eskoletan edo Rocioko koruetan. Belaunaldi gazteak erakartzeko ekintza berriak ari gara txertatzen orain gure egitarauan, lehen komentatu bezala.

Manolo: Guk duela gutxi ospatu dugu Galiziar Letren Jaia jaia. Bertan ere berrikuntzak txertatu ditugu gazteak erakartzeko, podcastak esaterako.

Jose: Argi duguna da ez ditugula gure sustraiak galdu nahi, hori da helburu nagusia.

**Harreman ona izan da beti lau etxeen artean?**

Vicente: Oso ona, ez da inoiz inolako arazorik egon. Kontrara, asko lagundu diogu elkarri. Extremadurako Etxea sortu genuenean bilerak Zentro Galegoan edo Salamanca tabernan egiten genituen.

Jesus: Andaluziako Etxeko lehenengo bilerak ere Galegoan egin genituen, horrela jasotzen du akta liburuak.

Jose: Giro ona egon da, eta niretzat garrantzitsuena da oraindik ere badagoela. Beti gaude elkar laguntzeko prest.

**Nola ospatuko dituzue Laudioko Jaiak aurten?**

Jose: Bereziak izango dira ziur. Ahalik eta ekintza gehienetan egoten saiatuko gara, ikus dadin gu ere bagarela herriaren eta festen parte. Guretzako ohorea da gu pregoilari hauatu izana.

# Pregoilariak urtez urte



## 2022

**SEBASTIAN MARTIN MANZANO 'TXANIN' eta JOSE IGNACIO GOIKOETXEA 'TXETXU'**
Berrogei urte eman zituzten Tomasa eta Terencio erraldkoiak jaietako kalejiretan eramaten



## 2019

**RUPERTO URQUIJO BOLATOKI KLUBA**
1966tik Aiarako bola jokoa ez galtzeko egindako lana eskertzeko izendatu zituzten pregoilari



## 2018

**ITXARKUNDIA DANTZA TALDEA**
Taldearen 40 urteko ibilbidea aldarrikatzeko izendatu zituzten pregoilari



## 2017

**AIARALDEA KOMUNIKABIDEA**
Euskararen normalizazioaren alde eginiko lana aitortzea izan zen izendapenaren xedea. Euskararen etorkizuna aldarrikatu zuen komunikabideak



## 2016

**LANKAIETAKO LAGUNAK**
Txistulari taldea 1976an sortu zuten, eta ordura arte egindako ibilbideari egin zioten gorazarre pregoian.

# Erantzunik gabeko erasorik egon ez dadin

Laudioko Mugimendu Feministak jaietan zehar 24 orduz martxan egongo den telefono zenbakia aurkeztuko du, protokoloa aktibatzeko. Zapi moreak ere salduko dituzte eta greba feministaren inguruko informazio guneak jarriko dituzte egun handietan.




Laudioko Mugimendu Feministak azaldu ditu aurtengo jaietan egingo dituen ekimenak. Urtero bezala, erasoei erantzuteko protokoloa jarriko dute martxan. Jaiek irauten duten bitartean edozein unetan erasoak salatu ahal izateko telefono zenbaki bat zabalduko dute datozen egunotan. Zenbakia 24 orduz egongo da aktibo, edonork behar duenean deitu ahal izan dezan.

Aurten ez dute azken urteetan Baserritar egunean egin izan duten manifestazioa egingo, baina horrek ez du esan nahi indarkeria matxista egunerokotasunetik eta jaietatik desagertu denik. Protokoloa berdin-berdin jarriko dute martxan, honen beharrezkotasunaz jabetuta, eta emakumeek eta sexu-disidenteek pairatzen duten indarkeria eta jazarpena salatzeko eta ikusarazteko bestelako ekimenak egingo dituzte. Urtero bezala, zapi moreak salduko dituzte, herri osoan zabaldu dadin sexismoaren kontrako aldarria.

### Antolatzen jarraitzearen beharra

Borroka feministak duen gaurkotasunaren adierazle, iaz hainbat eraso salatu behar izan zituzten jaien lehenengo egunetan. Abuztuaren 16ko gauean kalean eta herriko bi tabernatan hainbat eraso izan ziren, ez soilik Laudion, baita Amurrion ere. Mugimendu Feministak bi herrietan deitu zituen erasoak salatzeko manifestazioak hurrengo egunean. Laudion Alberto Acero plaza jendez bete zuten erasoak gaitzesteko eta autodefentsa feministaren garrantzia azpimarratzeko.

Erasoak salatzearekin batera, poliziaren eta gizon batzuen jarrerak gogor kritikatu zituzten. Batetik, erasoetako bat izan zen taberna batean polizia sartu izana salatu zuten, erasoa pairatu zuten emakumeek ahala nahi izan gabe eta "egoera behar ez zen muturrera tentsionatuz", gero "erasotzailea aske eta lasai joaten uzteko". Bestetik, gizon batzuen jarrera "paternalista eta oldarkorra" kritikatu zuten, baita erasotzaileen konplizeren jarrera ere. "Ez dugu printzipe salbatzaileen beharrik", argi utzi zuten elkarretaratzean.

### Greba feministarako prestatzen

Nolanahi ere, Laudioko Mugimendu Feministak ez du salaketara mugatuko jaietako jarduna, eta azaroaren 30ean zaintza eskubidearen alde Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitu duen greba orokorra zabaltzeko baliatuko dituzte egunok. Denon Bizitzak Erdigunean lemapean mobilizazio prozesu bat zabaldu zuen Euskal Herriko Mugimendu Feministak 2022an, "euskal zaintza sistema publiko eta komunitarioa ezaugarritzen hasteko". Azaroaren 30ean jarri nahi dute mugarria zaintza sistema aldatzeko.

Euskal Herriko herri eta auzoetan emakumeak hasi dira greba antolatzen eta sozializatzen, eta Laudio ez da salbuespena. Jai egunetan jende ugari elkartzen dela probestuta, bi egunetan informazio puntuak jarriko dituzte Mugimendu Feministako kideek. Lehena txupinazo egunean izango da, abuztuaren 15ean. Batzalarrin kalean banatuko dute greba feministaren inguruko informazioa. Hurrengo info-gunea abuztuaren 25ean jarriko dute Aldai plazan

# *“1960 eta 1990 urteen arteko kuadrilla guztiei luzatu diegu balkoira igotzeko gonbita”*




**OSCAR GOMEZ URIBARR** (Laudio, 1969) eta **AGUSTIN DIAZ GUTIERREZ** (Laudio, 1964) ‘Antzinako Kuadrillak’ taldeko kideak dira. 2016an atera ziren kalera lehenbiziko aldiz. . Aurten, aldiz, jaien hasierako surizia piztuko dute.

**Duela astebete iragarri zen zuk irabazi zenuela jaietako kartela lehiaketa. Nola jaso zenuen albistea?**

Oscar Gomez Uribarri: Suziri Jai Batzordeko kideek bidali ziguten mezua. Harriduraz jaso genuen lehenbizi, baina oso eskertuta, ilusio askorekin. Kolektiboan badugu lantalde bat, eta bertara eraman genuen proposamena. Bertako asanbladan aho batez adostu zen gu biok izango ginela suziria piztuko genuenak. Dena den, kontuan izan behar da, suziria gu biok piztu arren, txupinazo berezia izango dela...

Agustin Diaz Gutierrez: Hala da. Ez gara norbanako moduan igoko balkoira, antzinako kuadrilla guztien ordezkari moduan baizik.

O.G.U.: 1960 eta 1990 urteen artean Laudion egondako kuadrilla guztietako ordezkariei luzatu diegu gonbita. Batzuk erantzun dute eta beste batzuk ez, baina harrera nahiko oparoa egon da. Gauzak hala, abuztuaren 15ean hainbat kuadrilletako ordezkariak igoko dira balkoira.

**Ez zarete bakarrik egongo, beraz.**

A.D.G.: Ez. 1990ra arte egondako kuadrilla bakoitzeko pertsona bat igotzea nahi dugu, gutxienez. Urte

horretan jarri dugu muga nonbaiten jarri behar zelako…

O.G.U.: Nagusitxoenak garelako (barreak). Gazteagoak direnak oraindik ez dute uren burua ‘Antzinako Kuadrillen’ kolektiboan ikusten, normala denez.

**Beno, zuen garaiko zenbait kuadrillek ez diote inoiz aktibo egoteari utzi. Hor daude Zoroak edo Galtzagorri, adibidez.**

O.G.U.: Bai, baina kide historikoak jada ez daude kuadrillako egunerokoan, eta batzuetan badatoz gure ekintzetara.

2016an ekin zenioten Laudioko kuadrilla historikoetako kideak batu eta elkarrekin egitarau propioa atontzeari.

O.G.U.: 2015ko udazkenean sortu zen ideia. Gogoak sortu zitzaizkigun, urte askoren ostean. Lan-talde bat eratu genuen hainbat kideren artean eta forma hartzen joan zen. 2016ko maiatzerako jada bazegoen taldea eratuta, eta urte horretako sanrokeetan atera ginen lehenbiziko aldiz.

**7 urte igaro dira ordutik hona. Paradoxikoki, badaude kuadrilla historiko batzuk ibilbide luzeagoa egin dutela ‘garai berrian’ euren jatorrizko garaian baino. Nola baloratzen dituzue urte hauek?**

A.D.G.: Egia da hori. Positiboki baloratzen dugu eginiko ibilbidea. Beldurrarekin hasi ginen, ez genekielako zer gertatuko zen. Baina ikusi da jendeak erantzun duela eta eroso egon dela. Oso ondo pasatu dugu urte hauetan, abuztuaren 15 eta 16an batez ere.

O.G.U.: Dena ematen dugu. Hori bai, 17rako birrinduta gaude (barreak). Jai batzordeko gazteek arrazoi osoz esaten digute bolbora agortu egiten zaigula, baina nagusiak gara!

A.D.G.: Eta goizetik ateratzen gara, gainera. Hamaiketakoa egiteko geratzen gara, kalejira egiten dugu eta gero bazkaria. Dantza egiten dugu eta topera gabiltza… gorputzak ematen digunera arte.

O.G.U: Gaueko bederatzietarako ohean (barreak).

**Abuztuaren 16a da zuen egitarauko egunik indartsuena, ez?**

A.D.G.: Beno, eta baita 15a ere. Txupinazoko kalejiraren ostean taloa jaten dugu Zubiko Kurajo inguruan, diskodantza eta musika taldearekin batera. Aurten ere antzeko eskema mantenduko dugu.

**Zer mezu helaraziko duzue txupina jaurti aurretik?**

O.G.U.: Idazkia prestatua dugu. Jedea ondo pasatzea aldarrikatu dugu, eta errespetuan oinarritutako jaiak izatea. Gaur inoiz baino gehiago, jendea errespetatu behar da, eta gozatu. Azken finean, Laudioko jaiak gure jaiak dira, eta girotu egin behar ditugu, nagusiak gure modura eta gazteak euren erara.

AUTOBUSES
ONIEVA
Informazioa eta erreserbak:
94 672 64 45
Larrialdiak:
619 76 66 51
71 eserleku arteko autobusak

www.onieva.com
onieva@onieva.com

KOPAS
IDEIAK GAUZATZEN DITUGU
Gora Laudioko jaiak

Aialako Industrialdea, 8
01479 Murga - Aiara
fabrica@kopas.es
Tfno. 945.39.94.05
www.kopas.es
Alda. Urkijo, 88 -2º
48013 Bilbao
kopas@kopas.es
Tfno. 94.442.22.24


Eramateko tortillak
Errazioak: iberikoak, txanpiñoiak, muskuiluak eta tripakiak
Gure ardo-sortaz gozatu
Erreserbatu
94 672 10 09 telefonoan
tortilla edotа errazioak
Nerbioi kalea 3, Laudio

# *“Laudion dagoen aniztasuna islatzen saiatu naiz kartelean”*




**AITOR LAZKANOk** irabazi du Laudioko jaietako kartel lehiaketa eta, ondorioz, berak diseinatutako afixak iragarriko ditu abuztuko sanrokeak.

**Duela astebete iragarri zen zuk irabazi zenuela jaietako kartela lehiaketa. Nola jaso zenuen albistea?**

Astelehen goizean deitu zidaten, 12:00ak aldera. Udaletik deitzen zidatela esan zidaten eta ni nintzela irabaztea. Kristoren sorpresa hartu nuen, ez nuelako espero. Banekien aukerak nituela irabazteko, baina, beste kartelak ikusita, sumatu nuen sekulako maila zegoela. Irabazten duzun arte ez dakizu ziur.

**Lehiaketa honetara aurkeztu zaren lehengo aldia izan da?**

Bai, lehenengo aldia zen. Egia da nire senide eta lagunek bati esan didatela aurkezteko baina, ez nintzen animatzen probatzera. Aurten amak esan zidan parte hartzeko, lehiaketa atera zen egunean, eta hurrengo egunean hasi nintzen lehenengo zirriborroak egiten.

**Eskuz egin zenituen lehenengo zirriborro horiek, baina gero ordenagailuan jarraitu zenuen. Nolakoa izan da sorkuntza prozesua eta nola erabaki duzu kartelaren estiloa?**

Ez nuen ideia argirik hasieran. Erroketxu marrazten hasi nintzen, San Rokeren txakurra. Nire hasierako ideia zen Erroketxu odoloste baten barruan sartzea, odoloste-txakur bat... oso ideia arraroa, oso gauza zoroa baina, oso polita zen. Baina, gero ideia hori albo batera utzi nuen eta pentsatu

nuen, pertsonaiak marrazteko abilezia dudanez, pertsonaia asko sartzea, jaien grina hori islatzen saiatzea. Marrazkiak egiten hasi nintzen eta hainbat pertsonaia irudikatu nituen. Pertsonaia batzuk ez zitzaizkidan gustatu eta baztertu egin nituen, ‘proba-akats’ prozesua izan da.

Gero pentsatu nuen are hobea izango zela adin eta jatorri ezberdinetako pertsonak jartzea, Laudion dagoen aniztasuna islatzeko. Azken finean, aniztasun handia daukagu Laudion, eta nire intentzioa zen ahalik eta pertsona gehienek beren buruak kartelean identifikatu ahal izatea.

Prozesuari dagokionez, paperean marrazten hasi nintzen, ordenagailura pasatzeko gero. Txikitatik izan dut gustuko marraztea. Txikia nintzenean oso gogoko nituen marrazki bizidunak, eta gustuko nuen telebistan ikusten nuen hori paperean nire eskutik islatzea, istorioak sortuz. Txikitan jasotako erreferentzia horiek lantzen jarraitu nuen denborarekin, eta orain nire estiloa nahiko ‘marrazki bizidun’ modukoa da.



**Kartelean erabili duzun marrazteko modua da, beraz, zure ohiko estiloa?**

Bai, mota honetako marrazkiak egitean estilo hau jarraitzen dut. Nire Instagramean, aldiz, beste ilustrazio mota bat plazaratzen dut, lotuagoa diseinu grafikoarekin. Baina, mota honetako kartelak egiteko gogoko dut marrazki bizidunen estiloa jarraitzea.

**Txikitatik marrazten duzula esan duzu. Zer nolako bilakaera izan du zure marrazteko moduak urte hauetan guztietan?**

Txikitan arratsalde osoak pasatzen ituen marrazten, etxeko saloian edo izkina batean. Ikastolan ere nire klasekideak harritzen ziren nire trebeziarekin, eta marrazkiren bat edo beste eskatzen zidaten. Haur eta Lehen Hezkuntzan nabarmentzen zen nire trebezia beste ikasleen artean, eta irakasleek ere nire amari esaten zioten bere semeak sekulako talentua zuela marrazteko. Gero, nerabea nintzenean, blog bat egin nuen eta bertara igotzen nituen nire marrazkiak. Nerabea izanda, mezu politikoak zituzten marrazkiak egiten nituen. Zinemarekiko zaletasuna ere garatzen hasi nintzen, eta 15-16 urterekin mundu horretan sartu nintzen. Pelikula asko ikusten nituen, eta 18 urte bete nituenean erabaki nuen Ikus Entzunezko Komunikazioa ikastea Mondragon Unibertsitatean.

Nik gogoko nituen nire marrazkiak, baina ez nuen buruan horretara modu profesionalean dedikatzea. Irudiaren mundua asko gustatzen zait, eta zinema edo ikus-entzunezkoetan ikusten nuen bide on eta interesgarri bat nire mezua zabaltzeko.

**Sari hau jasota, baduzu ilustrazioaren munduan sakontzeko asmorik?**

Nire ibilbide profesionalari dagokionez, Fagorren egin nituen praktikak. Komunikazioko departamentuan egon nintzen bideoak egiten. Horregatik, marrazketa modu profesionalean ez dut asko jorratu. Baliatu dut, baina beste estilo batean, diseinu grafikora lotuagoa dagoena. Une honetan diseinu grafiko animatua lantzen nago, mugimenduzko diseinu grafikoari buruzko master bat egiten ari naiz Internet bidez. El Salvadorren ere egon nintzen, Euskal Global Training bekarekin. Sei hilabeteko beka zen, baina beste lau hilabetez geratu nintzen bertan, eta hor ere aukera izan nuen nire gaitasun profesionalak lantzeko.

**Laudioko jaietara itzulita, zerk egiten ditu berezi sanrokeak zure ustez?**

Laudioko jaiak oso bereziak dira. Zer esan dezaket laudioarra izanda? Oso politak dira, oso giro ona bizi da: txupinazoa, kuadrilla eguna, odoloste eguna... oso egun ederrak dira eta jendea oso pozik dago, eta hori oso polita da niretzat.

# Abuztuak

## 14 Astelehena

19:00 **Jaiak iragartzeko pregoiaren irakurketa** *Laudioko eskualde-etxeen eskutik*
Herriko Plaza

## 15 Asteartea

08:30 **Aire zabaleko XXV. Pintura-lehiaketa** Herriko kaleetan zehar

10:00 **Herri gosaria** *Baldarrak kuadrillak antolatuta*
Alberto Acero Plaza

11:30 **Kalejira Azeripoto trikitixa taldearekin** *Jai-talde historikoek antolatuta*
Zubiaur kalea

11:30 **Kalejira Kolpez Blai taldearekin** *Suziri-Jai Laudioko Jaiak Koordinakundea antolatuta*
Alberto Acero Plazatik

12:00 **Txupinazoa**
Herriko Plaza

12:00 **Kalejira Los Arlotes, Ekin Joleak, laudioko gaiteroak eta San Roke Musika Elkartearen eskutik**
Herriko Plaza

12:00 **Omenaldia Ruperto Urqijori** *Los Arlotes*
Lamuza Plaza

13:00 **Dj Ismeder, ekitaldi ibilatria**
Alberto Acero Plaza

13:00 **Txosnen irekiera ekitaldia**
Txosnagunea

13:30 **Iratzar erromeria**
Txosnagunea

13:30 **Diskofesta** *Jai-talde historikoek antolatuta*
Zubiaur kalea

15:30 **Appellido Adverbio** *Jai-talde historikoek antolatuta*
Zubiaur kalea

16:30 **Ski-taula eta txorizo opilak** *Azkenak kuadrillak antolatuta*
Zubiaur kalea

17:30 **Aire zabaleko XXV. Pintura-lehiaketaren sari banaketa**
Herriko Plaza

19:00 **Ardo aforatzea** *San Roke kofradia*
Elizpean

19:00 **"L'Actitud" antzezalana** *JAM Konpainia*
Lamuza Plaza

19:00 **Jaikide Disko Dantza** *Haitzulo Berri, Indriska, Biribil, Azoka, Blanco eta Batzokia tabernak*
Alberto Acero Plaza

21:00 **Consorcio taldearen kontzertua**
Herriko Plaza

22:30 **Akerbeltz Erromeria**
Txosnagunea

23:00 **Zezensuzkoa**
Herriko Plaza









# 15

13.00
Txosnen irekiera eta
URREZKO KATXIAren banaketa

13.30
ERROMERIA
**IRATZAR**

22.30
ERROMERIA
**AKERBELTZ**

# 16

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak eta txontxongiloak

14.30
GAZTETXEKO
**HERRI BAZKARIA**

23.00
KONTZERTUA
**COLAPSO ROCK**

KONTZERTUA
**LEIE MEIE**

KONTZERTUA
**DJ ENJOY**

# 17

11.00
FAMILIAGUNEA
Graffiti margoketa

11.00
**PAELLA TXAPELKETA**

12.30
HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA
**DISKO TXANTXA**

18.00
KLUEDOPOTEOA
Txosnagunetik

22.00
KONTZERTUA
**LA BASU**

KONTZERTUA
**AZKENAK ITXI DEZALA**

# 23

11.00
FAMILIAGUNEA
Jolasgunea

19.00
**KANTUKADA**
Parketik

21.30
ILUNTZE MUSIKATUA
*ZUMBA ERRALDOIA*
*BINGOA*
*DJ SORPRESA*

*ABUZTUAK 15-27*
**ALDAI PLAZA**

# Laudioko Txosnak 2023

*Egotetik egitera!*

# 24

11.00
FAMILIAGUNEA
Jolasgunea

14.30
KOADRILEN ARTEKO
**HERRI BAZKARIA**

16.00
LAUDIO'S GOT TALENT

23.00
KONTZERTUA
**KATU**

KONTZERTUA
**HOFE x 4:40**

ERROMERIA
**URRATS**

# 25

11.00
FAMILIAGUNEA
Buztin tailerra

12.30
HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA
**IPUIN KONTALARIA**

23.00
KONTZERTUA
**MUTIKO**

KONTZERTUA
**EZPALAK**

DJ FESTA
**D_NTZ___N J__RAI**

# 26

11.00
FAMILIAGUNEA
Ur jolasak

14.30
HERRI BAZKARIA
Txosnagunean

1.00
DJ FESTA
**DJ MASA**

LAUDIOKO TXOSNA BATZORDEA
*egotetik egitera!*

LAUDIO UDALA

# Abuztuak

## 16 Asteazkena

08:00 **Alborada** *Arloteak taldearen eskutik*
Herriko kaleetan zehar

09:00 **Kalejira** *Lankaietako Lagunak taldearen eskutik*
Herriko kaleetan zehar

10:00 **Kalejira** *Ekin Joleak taldearen eskutik*
Herriko kaleetan zehar

11:00 **Hasiberrientzako entzierroa**
Zezen plaza

11:00 **Meza solemnea**
Done Petri parrokia

11:00 **Familia gunea**
Txosnagunea

12:00 **Kalejira kubatarra** *Baisala elkartearen eskutik*
Alberto Acero Plaza

12:30 **Entzierroa eta bigantxak**
Zezen plaza

12:45 **San Roke Musika Elkartea**
Aldai Plaza

13:00 **Kalejira Azeripoto trikitixa taldearekin** *Jai-talde historikoek antolatuta*
Zubiaur kalea

13:00 **Sari ohoregarrien banaketa** *San Roke Kofradia*
Elizpea

14:30 **Herri bazkaria** *Laudioko Gazte Asanbladak antolatuta*
Txosnagunea

15:00 **Jai Talde Historikoen bazkaria**
Elizpea

16:00 **“Alla tu!”** *Azkenak kuadrillak antolatuta*
Txosnagunea

16:30 **Diskofesta** *Jai-talde historikoek antolatuta*
Parrokiako elizpea

17:00 **Erraldoi eta buruhandiak** *Galtzagorri Kultur Taldea*
Herriko Plaza

18:00 **Laudio Conquis** *Jalgi Kuadrillak Antolatuta*
Lamuza Plaza

18:00 **Herri kirolak** *Arrizkuzubik antolatuta*
Aldai Plaza

18:00 **Aurresku eta fandango eta arin.arin txapelketak** *Itxarkundia Dantza Taldeak antolatuta*
Alberto Acero Plaza

18:30 **“¡Dale Ramón!” antzezalana** *Trapu Zaharra Konpainia*
Herriko Plaza

20:00 **Kalejira eta barbakoa ibiltaria** *Xirika eta Zoroak kuadrillek antolatuta*
San Roke baseliza

20:30 **Yumas y Skorpio mas invitados**
Alberto Acero Plaza

20:30 **Goazen!**
Herriko Plaza

22:30 **Zezensuzkoa**
Herriko Plaza

23:00 **Gatibu**
Irkurutzetako aparkalekua

23:00 **Colapso Rock, Leie Meie eta Dj Enjoy**
Txosnagunea

## 17 Osteguna

09:00 **Kalejira** *Lankaietako Lagunak taldearen eskutik*
Herriko kaleetan zehar

11:00 **Diana** *Laudioko Gaiteroen eskutik*
Herriko kaleetan zehar

11:00 **Hasiberrientzako entzierroa**
Zezen plaza

11:00 **Familia gunea**
Txosnagunea

11:00 **Paella-txapelketa** *Txilardiak kuadrillak antolatuta*
Aldai Plaza

12:00 **Meza**
Done Petri parrokia

12:30 **Entzierroa eta bigantxak**
Zezen plaza

14:00 **65 urtez gorakoen bazkaria**
Laudio BHI

14:30 **Paella-txapelketako parte-hartzaileen bazkaria** *Txilardiak kuadrillak antolatuta*
Aldai Plaza

16:00 **Bingo musikatua** *Bagabiz kuadrillak antolatuta*
Aldai Plaza

17:00 **Erraldoi eta buruhandiak** *Galtzagorri Kultur Taldea*
Herriko Plaza

18:00 **Cluedo-Poteoa** *Bihurriak kuadrillak antolatuta*
Aldai Plaza

18:00 **Animazioa** *Laudioko Gaiteroen eskutik*
Herriko kaleetan zehar

19:00 **“Ipurbeltz” antzezalana** *Ameztu Anzterkia Konpainia*
Herriko Plaza

20:30 **Los 5 Bilbainos**
Alberto Acero Plaza

20:30 **Jai Tematikoa** *Galtzagorri kuadrillak antolatuta*
Laudio BHI

21:00 **Bingo musikatua**
Txosnagunea

22:30 **Azkenak Itxi Dezala Dj**
Txosnagunea

23:00 **ETS**
Irkurutzetako aparkalekua



IZA ascensores

Marka anitzeko igogailuen mantentze-lanak.

Berehalako erantzuna.

Hurbileko arreta, pertsonalizatua.

www.izaascensores.es 94 672 21 52

@centroyaso

Yaso

YASONE MEABE

Masaje eta osteopatia zentroa · Estetika

LNT saioak · Terapia alternatiboak

Baias 7, Laudio 688 696 619

BELÉN ANDRÉS

Psikologia eta Mindfulness

Hazkunde pertsonaleko ikastaroak

665 714 596

ILARGI TABERNA

Jai zoriontsuak!

Batzalarrin kalea 6, Laudio

94 672 09 99




ZURE KOMUNIKAZIO AGENTZIA INTEGRALA

Jarrai gaitzazu instagramen!

@komunika.eus



FAKTORIAN, Errotari kalea, 4-8 LAUDIO

www.komunika.eus

946 56 85 54

komunika@aiaraldea.eus

KOMUNIKA

ENKARKI

ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

Eraikuntza, industria, ekitaldiak, lorezaintza eta garbiketa

ONDO PASA JAIETAN!

Arza II industrialdea, LAUDIO · 946 43 00 42 · enkarki@enkarki.net · www.enkarki.net

YANDIOLA HORTZ KLINIKA LAUDIO

Mediku zentroa RPS: 314/18

Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00

75 urte zurekin



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIAK

# Jai kuadrilak




## BALDARRAK
Jagoba

**Zein da Laudioko jaietako zure ekintzarik gogokoena? Zergatik?**
Gosaria, lehen ekitaldia delako eta jende ugari biltzen delako txupinazoaren aurretik.

**Zer ezin da falta Laudioko jaietan?**
Edaria.

**Zein uste duzu izango dela jaietako abestia?**
'Levanta plaka'.

**Odolostea bai ala ez?**
Ez... da egunik aproposena gure urdailak jasateko.

**Etxera joan aurretik zein da zure pintxorik gogokoena?**
Risketoak.

**Zer dute Laudioko jaiek Amurrioko jaiek ez dutena?**
Amurrion jaiak daude??





## JALGI Uxue González eta Julen García

**Zein da Laudioko jaietako zure ekintzarik gogokoena? Zergatik?**
Nire Laudioko jaietako ekintzarik gogokoena jaietan zehar egiten diren kalejirak dira. Bereziki deigarria ez izan arren, beti egoten da oso giro ona.

**Zer ezin da falta Laudioko jaietan?**
Jaietako gauzarik garrantzitsuena kuadrillak berak dira. Hauek animatuta eta ekintzak egiteko gogoekin badaude, jaien arrakasta ziurta daiteke.

**Zein uste duzu izango dela jaietako abestia?**
Azkenengo bi urteotan Zetaken abestiren bat izan da jaietako abestia, baina uda honetan oraindik abestirik atera ez dutenez, Malakiasen remixen bat izan litekeela esango nuke, J Martinaren 'Amore' kantuarena, adibidez.

**Odolostea bai ala ez?**
Odolosteek duten arazoa odola bada, gaur egun Eroskin bertan odoloste beganoa bezalako alternatibak daude. Odoloste eguna, odolostea jan ala ez, familiarekin eta lagunekin elkartzeko aitzakia da, besterik ez.

**Etxera joan aurretik zein da zure pintxorik gogokoena?**
Etxera iritsi aurretik falta ezin daitekeen pintxoa patata tortilla da, eta Colacao batekin bada, hobe. Berdin dio El Valle edo Aldatz tabernan den, tortilla pintxoa ezinbestekoa da.

**Zer dute Laudioko jaiek Amurrioko jaiek ez dutena?**
Laudioko jaiek Amurriokoek baino askoz ere festa giro handiagoa dute, gainera, egun gehiagotan zehar. Zerbaitegatik izango da Amurrioko jendea beti datorrela Laudioko jaietara.

## **BAGABIZ** Maider Ramírez eta Gaizka Martín

**Zein da Laudioko jaietako zure ekintzarik gogokoena? Zergatik?**

Dagoeneko gure egin dugun bingo musikatua dela esan nahiko genuke, baina Got Talentean Intziriak eta Azkenak kuadrilletako kideen arteko perreo-batailak ere kristonak dira.

**Zer ezin da falta Laudioko jaietan?**

Edozein herri bazkariren ostean hasi eta gaueko kontzertuekin lotzen den kalejira on bat.

**Zein uste duzu izango dela jaietako abestia?**

Aurten Rosario datorrela aprobetxatuz... PATXURU PATXURU!

**Odolostea bai ala ez?**

Noski, nahi dugunerako tradizionalak gara.

**Etxera joan aurretik zein da zure pintxorik gogokoena?**

Cafe Arabako edo El Valleko tortilla pintxoa, ajerik ez izateko erremediorik onena.

**Zer dute Laudioko jaiek Amurrioko jaiek ez dutena?**

Argi dago Laudioko giroa hobeezina dela. Zer esan Amurrioko kontzertuen kalitateari buruz. Baina bueno, hori Amurriokoei galdetu beharko diezue, beti etortzen baitira.



## **AZKENAK** Eneko Sanchez

**Zein da Laudioko jaietako zure ekintzarik gogokoena? Zergatik?**

Zoroka extreme dudarik gabe! Arrazoia argia da: urteko ekintza da. Herri guztia biltzen da zezen plazan jolasak ikusteko eta ondo pasatzeko.

**Zer ezin da falta Laudioko jaietan?**

Txupinazoa, noski! Urteko momenturik magikoenetarikoa da, goizetik gauera arte geldiunerik ez duen eguna!

**Zein uste duzu izango dela jaietako abestia?**

Aurtengoa? Bada, aurrekoa argi egon zen arren, aurten dudatan nago... agian alboka?

**Odolostea bai ala ez?**

Sekretu bat aitortu behar dut... ez zait inoiz odolostea gustatu (barreak).

**Etxera joan aurretik zein da zure pintxorik gogokoena?**

Patata tortilla! Hori da hurrengo egunera arte tripan oinarria egiteko balio duen pintxo bakarra.

**Zer dute Laudioko jaiek Amurrioko jaiek ez dutena?**

Zer ez duten? Ba Laudion ditugun kuadrillak! Gora Laudioko Jai Batzordea!!!






# Kuadrilak

## EZTANDAK
Maialen Bilbao

**Zein da Laudioko jaietako zure ekintzarik gogokoena? Zergatik?**

Laudioko jaietako ekintzarik gogokoena kuadrillen eguneko herri bazkaria da, bertan dagoen jai giroa ederra da.

**Zer ezin da falta Laudioko jaietan?**

Txupinazo eguneko kalejira, gogo handiz ibiltzen gara eta giro ederra sortzen da. Ekintza guztiak garrantzitsuak dira gure jaiek bizirik irauteko, beraz, ekintza guztiak bereziak direla esan daiteke eta hauek ezin dira falta.

**Zein uste duzu izango dela jaietako abestia?**

Aurten ez daukat argi... baina sare sozialetan askotan agertzen den “Patxuru”a izan daiteke Laudioko jaietako abestia.

**Odolostea bai ala ez?**

Odolostea bai!

**Etxera joan aurretik zein da zure pintxorik gogokoena?**

Pernila-pintxoa edo patata tortilla.

**Zer dute Laudioko jaiek Amurrioko jaiek ez dutena?**

Laudion dauden gazte parranderoak eta ekintza aniztasuna.



## ITZELAK Laura

**Zein da Laudioko jaietako zure ekintzarik gogokoena? Zergatik?**

Bi ditugu gogokoen: Got Talent eta Zoroak Extreme. Kuadrillen arteko harremanak hobetzen laguntzen baitute.

**Zer ezin da falta Laudioko jaietan?**

Txupinazoa, adin guztientzako kontzertuak, herri-kirolak, euskal dantzak eta euskararen aldeko ekintzak.

**Zein uste duzu izango dela jaietako abestia?**

Quevedoren Columbia.

**Odolostea bai ala ez?**

Bai!

**Etxera joan aurretik zein da zure pintxorik gogokoena?**

Patata tortilla pintxoa.

**Zer dute Laudioko jaiek Amurrioko jaiek ez dutena?**

Kuadrilla guztiak egindako lanari esker sortzen den giroa. Azkenean, Laudioko jaietan antolatzen diren ekintza guztiak kuadrillek prestatzen dituzte eta denok festetan sartuta gaude dena ondo atera dadin!





## GALTZAGORRI
Gaizka Arbaiza

**Zein da Laudioko jaietako zure ekintzarik gogokoena? Zergatik?**

Kuadrillen bazkaria.

Kuadrillen arteko harremanak sustatzen direlako.

**Zer ezin da falta Laudioko jaietan?**

Buruhandiak

**Zein uste duzu izango dela jaietako abestia?**

Afrikako Erregearen ‘Bomba’.

**Odolostea bai ala ez?**

Odolostea bai, Santamariakoa, ahal bada.

**Etxera joan aurretik zein da zure pintxorik gogokoena?**

Pedrata Kebab Berezi

**Zer dute Laudioko jaiek Amurrioko jaiek ez dutena?**

Noiz dira Amurrioko jaiak? Ez dakigu, ez gara egon Amurrion.


GATXETO
ESTANKO
Jaietan ere, zuekin.
@gatxetoestanko
Ibaizabal 2, LAUDIO
94 672 21 42


GASTROTABERNA
txango
Terraza erreserbatu ospakizunetarako
BOKATA EGIN BERRIAK
Aldai enparantza / 944 677 100


CHARCUTERIA-URDAITEGIA
ANA MARI
DESDE 1985TIK AURRERA
ABASTOS PLAZA, LAUDIO
EGIN ZURE ESKAERA
94 672 03 91 - 620 01 41 74


kafe iluntze
LAUDIOKO JAIAK GOZATU
GORA SANROKEAK!
Zumalakarregi Etorbidea, 47
01400 Laudio - Araba
kafeiluntze@gmail.com 946725023


indriska
c/ Zumalakarregi 39 · 946 72 28 62


egoki
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA
· Fisioterapia funtzionala · Osteopatia ·
· Masaje terapeutikoa · Drenaje linfatikoa ·
· Bendaje funtzionala eta Kinesiotape ·
· Etxez etxeko zerbitzua ·
· Amatasun eta erditzeondoko prestaketa ·
Maestro Elorza Kalea 5, Laudio (tren geltokitik hurbil)
T 945 561 951 · M 605 446 628


OKINDEGIA - PANADERIA
IZA
DESDE 1956
ARTISAU-OGIA
Ogi berezi eta osasuntsuak
Gora herrietako jaiak eta ogi osasuntsua!
Euskadiko urrezko mamia saria
Kurtzegan, 3 · Orozko 94 661 00 68 / Zumalakarregi, 30 · Laudio 94 672 84 94
okindegiaizahnospanaderia@gmail.com @panaderiaiza @iza_okindegia_panaderia

# Abuztuak

## 19 Larunbata

**08:00** **Tortilla eta untxi gisatuaren XLIV txapelketa gastroniomikoa** *Rakatapla elkarteak antolatuta*
Aldai Plaza

**09:00** **Padel txapelketa** *Laudioko gardea Padel Kluba*
Gardeako kirolgunea

**10:00** **Txirrindularitza lasterketa** *Laudioar Txirrindulari Elkarteak antolatuta*
Zumalakarregi etorbidea

**11:00** **Musika-animazioa** *Aiarako trikitilarien eskutik*
Aldai Plaza

**12:30** **Voces del Ebro jota taldea**
Aldai Plaza

**15:00** **I.San Roke Open Saria**
*Kart lasterketa*
Latiorro

## 20 Asteazkena

**09:00** **Padel txapelketa, finala eta finalerdiak** *Laudioko gardea Padel Klubak*
Gardeako kirolgunea








**bonaire**
disco bar
Zure disko-taberna!
Zumalakarregi etorbidea,
LAUDIO // **946 72 58 41**
Jarrai gaitzazu! **@bonaire.laudio**

**Ortopedia AMURRIO**
- NEURRIRA EGINDAKO BARNE-ZOLAK
- OHE ARTIKULATUAK
- KOMUNEKO LAGUNTZA-TRESNAK
- GURPIL-AULKIAK, TAKA-TAKAK, MAKILAK, PAXAK
- BAINUGELEN EGOKITZAPENAK (Igeltserotza, Iturgintza, Elektrizitatea, Arotzeria)

OSAKIDETZAREKIN ITUNDUTAKO ESTABLEZIMENDUA
Frontoi kalea 4, behea (Amurrio)
945 89 02 01 – josebaurieta@hotmail.com

**GESNERVIÓN**
ABOKATUAK
· Banku-klausulen erreklamazioak (gastuak, lurzorua, IRPH, lukurreria, txartelak...)
· Istripuak, herentziak, dibortzioak...
· Merkataritza eta enpresa zerbitzuak
AHOLKULARITZA
· Autonomo eta enpresentzako aholkularitza (fiskala, lanekoa, errentak...)
· Higiezinen zerbitzuak
· Gestoria (trafikoa, errentamenduak, kontratazioa...)
Jose Madinabeitia 12 – behea, Amurrio · **687 161 489**
info@gesnervionabogados.com · www.gesnervionabogados.com



Bañuetaibar kalea, 14 · 945 892 345
ecomobelhector@gmail.com

OBRA BERRIA eta ERABERRI-TZEAK
BASARTE, S.L.
ERAIKUNTZAK ETA HONDEAKETAK
*35 urte baino gehiagoko esperientzia*
Zeramika eraikuntza, LAUDIO / basarteconst@telefonica.net
94 672 12 58 · 945 89 20 19 · 609 400 135

**PROIEKTA** estudio
DISEÑO DE INTERIORES
Berriztatze integralak
Sukalde eta komunen berrikuntzak
Neurrira egindako altzariak
Dekorazioa
Elexondo kalea 22, AMURRIO
Tel. 606 918 74

Suziri
jai batzordea
*Laudioko jaiak, herritik gertuago*
@laudiokojaibatzordea · laudiokoordinakundea@gmail.com

# Abuztuak

## 23 Asteazkena

10:00 **Haurrentzako parkea**
Lamuza Parkea

10:00 **Aldibereko xake partidak**
*Laudioko xake taldearen eta Basalarrinaren eskutik*
Aldai Plaza

10:00 **Eskupilota partidak**
*Herriaren pelotazale elkartearen eskutik*
Lamuza frontoia

11:00 **Soka eta astoaren kalejira**
*Untzueta Dantza Taldeak antolatuta*
Nagusien egoitza

11:00 **Familia gunea**
Txosnagunea

11:00 **Haurren XIX. 3x3 hockey txapelketa**
*Ganbegi 6-2 Hockey Taldearen eskutik*
Laudio BHI

13:00 **Sokaren amaiera eta aurreskua**
